

11


**Ebazten dut**  
Pello Esnal

15

**Hizkuntza eskakizunak.**  
Azterketa eredu berriak  
IVAPeko ebaluaketa arloa

23

**Patxi Baztarrika:**  
**Euskararen etorkizuna gure esku dago**  
Joseba Barandiaran



## Luis de Pablo:

**“Diktadura garaian inori ez zitzaion interesatzen nik egin nezakeen musikarik”**

Luis de Pablo musika abangoardia zen iragan mendeko 50eko hamarkadan. Musika elektroakustikoa eginagatik ere, ez entzulearen ez kritikarien erantzunik. Oihartzunik ez inoren aldetik. “Axolagabekeria”, dio Luis de Pablok berak. Bere bideari eutsi zion, ordea, eta, egun, abangoardiaren ikur prestigioduna dugu de Pablo, askoz ere aipu eta sona handiagokoa erbestean, jaio zen herrialdean baino. Jakin-min handiko intelektuala, poliglota eta etorri ederreko solaskidea. Laurogei urte bizkarrean, eta afaneko da lanean, beti egin nahi izan duena egiten: musika.

5. or.

## Eztabaida:

### A gripeari aurre egiteko alarma gehiegizkoa izan da?

A gripearen eraginez 14.000 pertsona hil dira OMEk emandako datuen arabera. Pasa den ekainean pandemia egoera ezarri zuen. Zenbait laborategi txertoak egiten hasi eta munduko gobernuek milioika txerto erosi zituzten, OMEren aholkuei jarraituz. Baina urtebetetera pandemiaren eragina arina izan da, eta botika enpresek alarma pizten behar baino eragin handiagoa izan ote duten susmoa azaldu du zenbaitek. Europako Kontseiluak ikerketa bat jarriko du abian, OMEren eta laborategien arteko harremana zein den zehazteko.

13. or.

## Erreportajea: Elikagaien salmenta zuzena indartzen ari da



Elikagaien ibilbidea ez da beti bat eta bera. Produktuak merkaturatzeko hainbat zirkuitu ezberdin daude –zirkuitu luzeak batzuk, laburrak beste batzuk–, eta bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Merkaturatzeak jatorrizko eta helmugako salneurrien arteko ezberdintasun handia dakar beti eta gehienez. Merkataritza-gune handiak nagusitzeak denda txikietako eta azoketako ohiko merkataritza baztertea ekarri du, eta elikagaien kalitatearen eta tokian tokiko izaeraren galera. Egoera horren alternatiba gisa, ekoizpen eta kontsumoko talde autonomoak ageri dira, gurean ere poliki-poliki indartzen ari direnak.

18. or.

Atzerritarak gara,  
edonon bitita ere...  
Dena arrotza da  
eta ez du gure hizkuntza  
ezagutzen.

Fernando Pessoa





PAPER  
BIRZIKLATUA

**Zuzendaritza:**  
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

**Koordinatzailea:**  
Xabier Amatria

**Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea:** Itxaropena S.A.

**Ilustrazioak:** Concetta Probanza

**Zenbaki honetako lankideak:**  
Kaxildo Alkorta, Xabier Amatria, Jon Arizkun, Alberto Barandiaran, Urtzi Barrenetxea, Luis Elizondo, Miel A. Elustondo, Pello Esnal, Irene Fernández, Jone Gorostazu, J. Kruz Igerabide, Maite Imaz, IVAPeko Ebaluaketa arloa, Luma, Pedro J. Oiarzabal, Nerea Pikabea, Mentxu Ramilo, Aurkene Redondo, Amaia Ugartemendia, Izaskun Zuntzunegi.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argitaratutako artikulua berridatuz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik ateratu diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritzirik.

ADMINISTRAZIOA  
EUSKARAZ

ISSN: 1576-5563. **Legezko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea Donostia-San Sebastián 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 37. [www.ivap.euskadi.net](http://www.ivap.euskadi.net)

PERTSONAIA

# Maialen Lujanbio, bertsolaria: “Ez da erraza euskarazko jarduera batera horrenbeste jende erakartzea”



**Txapelketako ajea oraindik pasa gabe, urteko martxari begira jarrita dago hernaniarra. Emakumeak bertsoaritzaren goi mailan nabarmendu daitezkeela erakutsi du. Naturaltasunez egin du bide hori, eta berak aitortu duen bezala, ezinbestekoa izan da bide hori bere belaualdiko bertsoariekin batera egitea. Plazetara bertsoakera, gai, doinu eta entzule berriak ekarri dituen belaunaldikoa da. Bertso eskoletan dabilzan neska-mutikoentzako erreferentzia berria.**

## Zerk eraman zaitu bertso mundura?

Hernanin betidanik egon da bertsoarako zaletasuna. Bertsolari onak eman dituen babilara da. Ikastolan ere asko kantatzen genuen. Kantatu eta hitzarekin jolastu zalea izan naiz beti. Gu hasi ginenean, bertso eskola ere sortu berria zen. Faktore askoren arteko karanbola izan dela esango nuke.

## Modu berezian bizi izan du jendeak zuk txapela irabazi izana...

Emakume askok zoriondu naute, oso identifikatuta sentitu omen dira. Hori interesgarria da, gutxitan ikusten baita emakumea nabarmen izaten edo goren izaten duten ekintzetan. Orain arte ez da emakumezko txapelidunik izan. Ondorengo gazte bertsoarientzat erreferentzia bat da, gero eta naturalagoa izango den eta izaten ari den zerbait. Harrigarria izan da emakume helduek ere ze identifikazio eta ze poza sentitu duten. Beren garaipen txiki baten moduan bizi izan dutela esan didate.

## Hala ere, emakume gutxi ikusten da oraindik bertsoaritzaren goi mailan...

Gizarteko atal guztietan gertatzen den bezalaxe gertatzen da bertsoaritzan ere. Hamabost urteren buelta horretan, neska horiek apaldu egiten dira. Jendaurrean nabarmentze hori, lotsa, segurtasun falta... hori dena heziketaren eta txertatzen zaigun rol horren ondorioa da. Neska batek, txikia denean, ezin du imajinatu emakumeak jendaurrean nabarmendu daitezkeenik. Horregatik, garrantzitsua da erreferentziak sortzen joatea. Orain, erreferentzia gehiago eta diferenteak behar dira.

## Generoaren gaiari dagokionez, gizonezkoen ereduera egokitu izan zaretela esan izan duzue...

Orain ari da pixka bat aldatzen. Oso maskulinotzat jotzen diren paperak bete izan ditugu, batez ere gartzetxotan. Orain arte ezaugarri jakin batzuk zituzten emakumeak

ibili izan dira plazan eta hori ere esanguratsua da. Gizonen kasuan barietatea zabala da, handiagoa da. Emakumeen arteko umorean ere, zenbait gai jendaurrean aipatzea zaila egiten zaigu oraindik.

## Batzuek kritikatzin dute Sebastian Lizaso edo Joxe Agirrerren estiloko bertsoariak gustuko dituen bertsozalea baztertuta geratu dela.

Bertsoaritzan aldatzen joatea normala da. Baina oraindik badaude bertso afariak eta era horretako plazak. Kontua da beharbada gero komunikabideetan isla gehiago dutela bertsolari gazteek.

## Txapelketaren oihartzunak bultzatuta hurbildu da jendea finalera. Ez ote dago pixka bat puztuta?

Jendeak jakin-min hori izatea pozgarria da. Jende asko hurbilduko zen pentsatuz, “zer pasatzen ari da hemen horrenbeste jende erakartzeko eta jendeak horrenbeste gozatzeko?”. Ez da batere erraza horrelako jarduera batera, hau da, entzuleari ahalegin bat eskatzen dion eta euskarazkoa den jarduera batera horrenbeste pertsona erakartzea. Gauza pentsaezina zen lehen.

## Handitze horrek ez al du beldurrik ematen?

Beldurtzen gaitu arrakasta horrek, baina hori ondo kudeatu behar da, erotu gabe. Plazaz plaza jende asko dabil eta benetan hor dago lana, bertsoaritzak oinarri horri eusten dio.

## Andoni Egañak bete-bete bertsoaritzan aritzea erabaki zuen. Zein da zure asmoa?

Bertsotan eskusiboki inor ez gara ari. Bide horretan segitzeko asmoa dut, beti ere bertsoa ardatza izanda. Bertsoak askotarako ematen du, gauza asko egiteko dago oraindik. Esporazio horretan segitzeko asmoa dut.

**Nerea Pikabea**  
Kazetaria

## Familia kontuak

Izanak eta izenak direla eta, bitxikeria bat azalduko dut hemen.

Gure adinekoak hazi garen familien egitura, guk hemen, gure artean, ezagutu duguna, honelakoa da edo izan da gorabeherak gorabehera:

–Goi-goian aitona-amonak genituen (eta euren neba-arrebak, koinatu-koinatak, lehengusu-lehengusinak...).

–Goian, kokka bat beherago, gurasoak, hots, aita eta ama (eta euren neba-arrebak, koinatu-koinatak –gure osaba-izekoak, alegia– eta lehengusu-lehengusinak –gure osaba-izeko txikiak–).

–Behean, geu ginen: neba-arrebak edo seme-alabak, lehengusu-lehengusinak edo (b)ilobak, nondik hartzen den kontua.

Salbuespenak salbuespen, hori izan da gure familien egitura orain urte batzuk arte. Gorago ere jo genezake, birraitonengana eta herenamamengana; beherago ere bai, bilobasoen, herenbiloben zein tokilabilobengana, hau da, bilobasoen seme-alabengana. Gure familietakoak izan dira, hala berean, jasotakoak, sasikoak, andregaiak, senargaiak eta abar ere. Hitz horiek guztiak ditugu familian betetzen dugun tokiaren adierazle.

Senarrari emaztea hilez gero edo emazteari senarra, hildakoa joan egiten da (joan-edo, eraman-edo) eta hemen geratzen denari alarguna esaten zaio; hori gaur egun ere bai. Eta seme-alabei aita edo ama edo bi gurasoak hiltzen bazaizkie, umezurtz geratzen dira. Aitonarik, amonarik, seme-alabarik edo familiako bestelako kiderik gabe geratzen direnentzat ez dugu izen berezirik.

Hori da orain urte batzuk arte ezagutu duguna.

Gauzak asko aldatu dira ordea. Gaur egun ugari dira senar-emazteak (paperak egindakoak) eta, maila berean, gero eta ugariago, bikotekideak –neska laguna, mutil laguna– (paper kontuetan urriagoak). Andregaiaren ordeaz, neska, eta senargaiaren ordeaz, mutila. Seme-alabak ere jaiotzen dira: bat, bi, hiru (?), lau (??)...

Bizitza, bizitza, seme-alabak dituen bikote asko banantzen dela, paperak eginda eduki zein paperik gabeak izan..., eta bikotekide bakoitzak bizitza berriz antolatu behar izaten duela..., eta, askotan, bikotekide izandako bakoitzak lagun berria hartzen duela elkarrekin bizitzeko..., lagun berri horrek ere baduela seme-alabaren bat..., lagun berriek beste familia osatu dutela eta umetxoren bat edo beste jaiotzen dela... Hori ba!

Horrelakoetan, zenbat familia berri ditugu? Familia berri horiek ez al dute izen berezirik behar? Familia “zaharretako” ume(ar)en zer da familia “berrietako” ume(ar)en aita edo ama? Eta zer batzuen amona, osabak, lehengusinak, besteentzat? Kasurik ximpleena da hau; kasu normalak honen aldean korapilatsuak dira. Hitz berriak behar al ditugu? Eutsi harriari! Ez zoratu, hala ere.

Gabonak inguruan taberna batzuek patrikako egutegi txikiak banatzen dituzte. Egutegi horietako bateko testua da, orain hamahiru urtekoa. Ez zegoen euskaraz. Familiako kontuek bizi-poza kendu zioten gizon batek epaileari idatzitako gutuna da.

*Epaile jauna/andrea.*

*Gutun honen bidez honako hau adierazi nahi dizut:*

*Andre alargun batekin ezkondu nintzen, zoritxarrez. Jakin izan banu...!*

*Andre alargun hark alaba bat zeukan. Nire aita ere alarguna zen eta nire emazte berriaren alabarekin maitemindu zen eta ezkondu egin ziren. Horrela, bada, nire emaztea nire aitaren amaginarreba bihurtu zen eta, batera, aita nire suhi.*

*Handik gutxira, nire aitak semea izan zuen; haur hura nire anaia zen eta, batera, nire emaztearen biloba; beraz, ni nire anaiaaren aitona.*

*Denbora pasa eta, nire emazteak semetxo bat izan zuen; ume hura nire amaren neba zenez, nire aitaren koinatua zen eta nire aitaren semearen osaba. Nire emaztea bere alabaren amaginarreba zen. Ni, berriz, nire amaren aita naiz; nire aita eta bere emaztea nire seme-alabak dira eta ni neure aitona naiz.*

*Ikusten duzunez, epaile jauna/andrea, ezinbestean alde egin behar dut mundu honetatik, ez dakit-eta nor naizen ere.*


**Kaxildo Alkorta  
Laguna**

## JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN-BEHINEKO FUNTZIONARIOA

interinez@mindless.com





## Luis de Pablo:

**“Oso jarrera heldugabea da dena hitzez adieraz daitekeela pentsatzea”**

**Espainiako musika abangoardiak duen izen handiena da Luis de Pablo (Bilbo, 1930) konpositore, kritikoa eta zuzendaria. XX. mendeko 50eko hamarkadan, ordu arteko musika giro atzerakoiarekin hautsi eta Europa eta munduko lau bazterretan egiten zen musika berriari ateak irekitzen asmatu zuen. Ateak ireki orduko, berriz, eginahalean saiatu zen hura zazpi haizeetara zabaltzen. Atonalismoa eta serialismoa, forma aleatorioak, esperimendu grafikoak, teknika elektronikoak eta beste landu eta sakondu zituen, oso bide pertsonala. Gaur egungo espainiar musikak nazioartean duen musikaririk emankorrena eta, aldi berean, ezagutuena.**

### Hasieran, musika izan zen?

Bai, bai... Nire lehen oroitzapenak musikari dagozkio. Oso gauza ohikoa musikaren munduan. Ez ezazu uste nire berezitasuna denik. Musika, oro har, arte goiztiarra da, eta izan beharra du. Eman dezagun, biolin-jotzaile izan nahi duen batek –harizko instrumentista, oro har– jai du bost-sei urterekin hasten ez bada. Derrigorra du esnatze goiztiarra. Bokazio berantiarrek oso dira arraroak musikan. Halaber, arraro da bokazio berantiarra kantuan. Oso goiz hasi behar da horretan, hain zuzen, umeari gustatzen zaiolako, atsegin duelako eginkizuna. Zail da zazpi urte dituen nobelagilea izan litekeenik pentsatzea, baina, aldiz, sei-zazpi urteko ume batek biolina edo pianoa jotzea izatea bere pozik handiena, bai, hori izan liteke. Galdetu halako interprete honi, galdetu halako hari, berdin erantzungo dizute denek. Hasi, goiz, oso sasoz. Ondoren dator nork bere maila iristea.

**Nork bere maila iristea. Horretan nengoen nire batzuk interprete dira, beste batzuk artista.**

Interpreteak artista dira, nahiz eta hori norberaren gaitasunaren, irakasleen eta giroaren arabera dagoen. Eman dezagun Bulgarian jaiotako umea... Ez, Bulgaria ez da adibide egokia, herrialde sozialistak oso ernai ibili dira-eta horretan. Eman dezagun Egipton jaiotako neska edo mutiko bat, ahots ederraren jabe. Nekez izango da opera kantaria, ez du-eta horretarako girorik izango, Egipton opera tradizioz ez duelako. Besterik izango da herrialdeak eman diezaiokeena... Berdin

gertatu zen Espainian gure garaian: Gerra osteko egoerak nahitaezko zituen hainbat baldintza neska-mutil kokkorak musikara hurrera zitezten. Ez zen ezinezkoa, baina ez zen erraza.

**Zuk asmatu zenuen, hala ere. 1930an jaioa, Gerra ostean kokortu eta musikara emana...**

...Eta esango dizut niretzat ere ez zela erraza izan. Autodidakta izan nintzen nire formazioaren tarte batean. Nire lehen piano ikasketak ikastetxe batean jaso nituen, zazpi urteko mutikoa nintzela, Hondarribian. Ikaragarri gustatzen zitzaidan musika, eta halaxe hasi nintzen. Garai hartan bazen ohitura bat, frantses jatorrikoa, Lehen Jaunartzea prestatu behar, eta neskatokea ez ezik mutikoa ere mojen ikastetxera eramatekoa; Lehen Jaunartzea egin eta mutila fraide ikastetxera eraman ohi zen. Horixe izan zen nire kasua. Hondarribian, Gurutzeko Alaben Ikastetxean hasi nintzen musika ikasten. Hantxe igaro nuen Gerra, partez bada ere, eta bi gauza erakutsi zizkidaten: pianoaren oinarriak, eta frantsesa, han ez zen-eta besterik hitz egiten.

Andrazko bat izan nuen irakasle, oso zorrotza gainera. Ondoren, Madrilera etorri zen nire familia, eta egoera zeharo aldatu zen, nik batxilergoa ikasi behar izan nuelako, eta batxilergoan pianoa jotzen ikasteko denbora oso zegoelako mugatuta. Nire familiak goi ikasketak egin nitzan nahi zuen, eta kito. Nire kontura saiatu behar izan nuen, eta garai hartan benetan izan nintzen autodidakta. Hurrena, Espainiatik lekora bidaiatzeko modua izan nuenean, soldadutza eta gainera-

**“Ez dago harmonia eskola hoberik, koruan kantatzea baino, partitura eskuan”**

koak egin eta gero, musika ikasteko aukera izango nuen nora edo nora joateko asmoa hartu nuen, bat edo baten zuzendaritzapean ikasteko. Bi leku izan nituen: Alemaniako Darmstadt, eta Paris. Darmstadt diogokionez, hainbat urtetan joan nintzen hango uda ikastaroetara. Parisen, berriz, Max Deutsch-en ikasle izan nintzen urte askoan.

### **Lanbidea ikasi zenuen, zeure baitako artista izan zinen gero...**

Onuragarri da ofizioa ikastea, oso onuragarri, ona da-eta nondik gatzoten jakitea. Aurrekoek zer egin duten jakin behar dugu, guk geureak egin ahal izateko. Nire garaian, oso egituratuta zegoen dena: harmonia, kontrapuntuaren teknikak –fuga, batik bat–, eta konposizioa erakusten zituzten, hau da, musika forma tradizionalak. Eta, oroz gain, eta onean, entzuten ikasten zen, nahiz eta ohikoena ez izan. Alegia, musika gehien ikasteko moduak egitea eta entzutea dira. Nire iritziz, ez dago harmonia eskola hoberik, koruan kantatzea baino, partitura eskuan. Harmonian, teoria ikasten da, pianoaren kontrastea beste laguntzarik gabe. Baina askoz hobe da laukote bokal baten edo koru txiki baten bitartez saiaterzea, non norberak belarria behar duen hartaz jabetzeko. Irakasle beharrik ez dago orduan. Ez dago esplikazio teorikoen beharrik, entzuten eta entzuten da, norberak egin ahala. Ez dago hori bezalako eskolarik, horixe da eskola onena. Ez da lege-araua, baina balio lezake! Kar, kar, kar...

### **Nola iragaten da lanbidea ikastetik goi mailako artista izatera?**

Artea beti da ikasgai, beti ari zara ikasten. Esaterako, Goyak badu marrazki bat, askoren artean bat, non ageri den agure bat –Goya bera, ausaz–, ximeldua, baina barrez, guztiarekin ere. Margolanaren izena: *Oraindik ikasten ari naiz...* Eta horra hor Picasso, bizi guztian ikasten jardun zuena. Berdin, musikan. Stravinskyk, esaterako, garbi ageri du eboluzioa. Zer esanik ez Beethovenek. Haren lehen *opus*-ek ez dute ikustekorik azkeneoekin, zeharo dira ezberdinak... Eboluzioa gertatzen da, pertsonak eboluzionatzen duelako: bere artearen oinarriak ezagutzen baditu, eta haiek lantzeko jakituria baldin badu, zer edo zer ezberdina egingo du, goiz ala berant.

### **Sortzea, berrikuntzak egitea da beti?**

Ez da gauza bera. Berrikuntza, horixe da, zerbait berri egitea, eta, hori, gertatzen denean baino ez da gertatzen. Fernandoren egia duzu, baina hala da. Sortzea, aldiz, ez zegoen zerbait egitea da, nola edo hala, aberasten gaituena. Stravinskyren adibideari helduko diogu berriro ere; demagun haren lehen obretako bat hartzen dugula, *Artifizio suak*, orkestrarako egina–, eta, bestalde, handik bost bat urtera egin zuen beste bat –jo dezagun, *Udaberriaren kotsagrazioa*–, ez dute batak bestearekin ikus-

tekorik... Berrikuntza kontinentea aurkitzea bezala da. Gertatzen da, batzuetan, eta batzuei. Ez denei, bistan denez.

### **Uste nuen berrikuntza izan zela zure motibazio behinena...**

Ez da motibazioa, beharra baizik. “Zerbait berri egitera noak!” dioenak, nekez asmatuko du. Adierazteko beharra izateak darma artista, konpositorea, delako *hori* egitera, eta ez beste ezerk.

Behar horri erantzunak aurkitzeko indarra izatea, hori da gakoa. Badira horretan luzesten direnak, beren sorkuntzaren aldi jakin bat –ez nuke esango errepikakorra–, ez hain originala, bizi dutenak. Baina halako une bat gertatzen da, eta halako musika bat egin duen artista hori bestelako bat egiten hasten da, aurrekoarekin batere ikustekorik ez duena, oso berria edo ez hain berria, era askotara izan bailiteke berri... Infinitu dira berri izateko manerak –tira, gizakien gainean ari eta infinitu hitza erabiltzeak ez du zentzurik–, baina bai, behintzat, zenbakitza. Badira artista batzuk berrikuntzaren bidea kostata aurkitzen dutenak. Beste batzuek

ez dute inoiz aurkitzen, beti bat eta bera eginez bizi dira. Beste batzuek, aldiz, sasoz aurkitzen dute, eta harrezkero egin duten lana behiala aurkitu zuten haren ondorio da. Horren adibide da Ravel. Oso goiz aurkitu zuen bere mundua. Handik goiti, hura esploratzeari ekin zion, maitasun handiz, baina erabateko aldaketarik gabe. Haren hizkuntza zeharo mamituta dago, gaztetandik. Ondoren, hamaika gauza ezberdin ageri dira haren obran, baina ez beste ahots pertsonalik. Ravel oso erraz da ezagutzen, lanean hasi zenetik, amaiera arte. Haren lanean badira salbuespenak, hala ere. Ravelen obran badira lan batzuk, bestelako bide bat izan zezaketenak, baina Ravelek hartu ez zituenak, ez zuelako astirik izan, edo ez zitzaizolako interesgarri iruditu, edo zernahi. Antzekoa esan daiteke Chopini buruz: oso gazterik aurkitu zuen egin nahi zuena eta, harrezkero, huraxe aztertzeraz emana bizi izan zen, xehetasun guztien bila. Beste zenbait konpositorek bestela egin zuten: Stravinskyren kasua da, edo Debussyrena. Hori bat-bateko aldaketak ageri dituzte beren lanean. Dena dela, bat-batean aldatzea aski gertakari berria da; ez ditu ehun eta berrogeita hamar, berrehun urte izango. Denboran atzera joz gero, askoz bakanago gertatzen da, eta ez musikan bakarrik, gainerako arte guztietan baizik. Izan ere, artista halako marko baten barruan bizi zen, dela gortean, dela Elizaren zerbitzura, dirudunen menpe... Eboluzionatzen zuen, bai, hezur-haragizkoak garelako, baina ez zen oso eboluzio sakona. Konpositorea inoren zerbitzupan bizi zen, eta ez zion bere buruaren eboluzioari baino jarraitzen, bestelako aldagatzen bila ibili gabe. Alegia, haien obrak ez du gaur eguneko konpositoreen lanean ager litekeen kontrasterik.

### **Noiz aurkitu zuen Luis de Pablok egin nahi zuena, bere bidea?**

Ez dut uste nire musika bat eta bera denik beti. Uste dut, nire obraz hitz egiteko gai naizen heinean, alegia –hori beti baita

eztabaidagarria—, esango nuke 50eko hamarkadaren amaiera orduko aurkitu nuela neure bidea: *Gerardo Diegoren testuei iruzkinak*, 56koa, edo *Ganbara orkestrarako asmakuntzak*, garai berekoa, *Pianorako sonata*... 50eko hamarkadakoak dituzu hirurak eta, nik esatera, ordurako nire lan egiteko modua zehaztuta zegoen. Baina, esango dut, *Gerardo Diegoren testuei iruzkinak* entzun, eta, ondoren, nire opera bat entzun (eman dezagun *Kristina andereñoa*), edo kontzertu bat (*Biolontxelo eta orkestra kontzertua*)... ez dago agerian egile bat berarenak direnik. Arreta handiz aztertu beharra dago horretaz jabetzeko, alegia, haien hondoan ideia bertsuak dautzala antzemateko.

### **“Luis de Pablo, 51ko belaunaldiko musikaria tar-tar”. Zer irizten diozu etiketari?**

Hitz egiteko moduak dira. Kutzak eta kutxatilkak mila eta bat gehiago dituzu eta, beraz, ez dit ardura. Jaiotze data dugu berdintsua belaunaldi hartakook eta, bestalde, Espainian ginenok, antzera bizi ginen. Horrek bai, batzen gintuen, baina ez egiten genuen musikak... Bai!, gure musikak ere bazuen antzik, nahiz eta nork bere erara interpretatzen zuen: denok ere aldatu egin nahi genuen ordu arte espainiar musikaz esaten zen hura, hau da, hango eta hemengo folklorea oinarritzat zuela, Paristik zetozen teknikak erantsita. Egia ere bazen hori. Ulertuko bazen, ezaugarri nazionalista bat izango ez zuen musika egin nahi genuen: “Bai, halakok espainola izan behar dik, ze lehenengo partean hiru bider zortzi, ondoren hirukotxo... Bazakiagu, motel!” Guk ez genuen ezer Manuel de Fallaren kontra —gutziz alderantziz!—, baina kontua zen Manuel de Fallak egina zuela musika hura, oso ondo gainera, eta beraz, ez zegoela hura berriz egiteko motiborik. Horixe zen nire jarrera eta, uste dut, nire kideena. Osterantzean, 1951, urte horixe besterik ez dut ikusten berdinean, eta garai hartan denok soldadutza egin behar izan genuela, 1930 inguruan jaiok ginelako denok. Kar, kar, kar...

### **Francoren diktadura garaian zineten, artegintzan. Garai beltza sorkuntzarako...**

Erraza ez zen, ez... baina gehiegi litzateke debekurik izan zenik esatea, edo pertsegitu gintuztela. Nire kasuan ez, behintzat. Beharbada izan zen zer edo zer, baina leun xamar; diktadura baten metodoak kontuan harturik, esan nahi dut. Beste zerbat zegoen, errepresioa bezain latza: axolagabekeria. Inori ez zitzaion interesatzen nik egin nezakeenik. Neure buruaz ari naiz, ez dut-eta beste inoren izenean hitz egiteko ahalmenik. Ez zitzaion inori interesatzen. Horregatik egin nezakeen nahi nuena, neure buruarentzat ari nintzen eta. Ez zuen garrantzirik batere. Horrexek eraman ninduen kontzertu antolatzaile izatera, nik horretarako bokaziorik ez banuen ere. Egin behar izan nuen, esarari men eginez: “belaunak pisu eta hesteak zimur” bizi ginen.

### **“Eta begietan tristura”.**

Horixe, eta begietan tristura... Dirua behar nuen, eta aurkitu nuen, sosik ez nuen eta. Kontzertuak antolatu nituen, eta nahi-ko arrakasta izan zuten, denbora aski luzean. Ganbara musika ezagutarazi genuen, ez bakarrik nirea edo gure kideena, munduan egiten ari zirena baizik, eta ez bakarrik European egiten ari zirena. Are gehiago, harro diot, baina harrokeriarik gabe, Espainian, lehenengo aldiz, kontzertu sasoiak antolatu zirela, non tradizio ez europarreko musika aurkezten baitzen: irandarra, hindua, libanoarra, malaysiarra... Aurkitu nuen oro aurkeztu nuen musika denboraldi haietan, eta arrakasta handiz. Nik egingdakoetan, horrek izan zuen arrakastarik handiena, dudarik gabe. Musika tradizio ezberdinak, alegia. Oso garrantzizkoa izan zen, eta aurkikuntza galanta. 1960-61ean izango zen hori... Duela denbora asko... Zera ere esan behar dizut: gaur egun oraindik, Espainian, ez dago horrelako musikez osatutako denboraldirik. Entzuten dira, aldian behin, halako eta halako taldeak. Baina etorri eta joan egiten dira, ez dago denboraldi eraturik, ordea, hilean behin eta areto jakin batean... horrelakorik ez da. Ez dut uste bidegabekoa naizenik hori esanda: inork ez dio asmoari heldu.

### **Oraindik galdetzen dizute: “Maisu, zer esan nahi izan duzu pieza horrekin?”**

Lantzean behin. Baina hori Beethovenekin ere gertatzen da. Ez, gero, uste nire kontua baino ez denik. Hara —eta harrokeriarik eta ezelako mespretxurik gabe diotsut—, uste dut oso jarrera heldugabea dela dena hitzez adieraz litekeela pentsatzea, alegia, beste biderik ez dagoela uste izatea... Eta, jakina, hori ez da egia, ez da horrela. Jende asko hiltzen da —99 urtetan, gero!, lobak eta bilobak izan eta bizian oso zoriontsu—, jakin gabe hitzaz beste komunikatzeko

modu asko daudela. Hitzaz beste, adierazpide esfera ezberdinak daudela jakin gabe bizi eta hiltzen dira!

### **Nola da posible oraindik ere heldugabe izatea lehenengo belaunaldiak ez ezik, gaur egungoak, eta atzetik datozenak?**

Denok gara heldugabe adolezenteak zer edo zertan. Ni, haste-ko, adolezente ez, titiko haurra naiz hegazkina pilotatzen. Arlo askotan gara adolezente, eta musikan, eta literaturan, eta... Literatura. Konturatu zara zenbat jende halako liburu bat irakurri eta istorioari besterik ez diola arreta ematen? Horren atzean dagoenari ez diola kasurik egiten? Ez dela jabetzen? Horiek gehiengo dira. Eta musikara etorriz, konturatzen zara zein musika kontsumitzen dugun? Eta nola? Hondamendia iruditzen zait niri. Zuri ez?

**Miel A. Elustondo**  
**Idazlea eta argazkilaria**

# Eman dezagun

**E**man dezagun ama zena baserrian jaioa zela, joan den mendeko hogeietan, artean lixiba errekan egiten zen garaian. Eman dezagun gerra estu eta larri igaro zuela, anaia zaharrena alde batean eta bigarrena kontrako aldean.

Eman dezagun aita hirian jaioa zela, eta ia amaitu zituela batxiler ikasketak, nahiz eta azken ikasturtean lanean hasi behar izan (“mekanikari-aprendiz, eta suberte haundiz”, esan ohi zuen), gerra lehertu zelako eta aita faxistek hil ziotelako.

Ama ez zen eskolara joan, baina herriko erretoreak erakutsi zion idazten eta irakurtzen, dotrinan. Eta, nerabezaroan, izeba ezkongabe batek hirira eramane zuen urte pare batez, gerra hasi aurretik, eta josten erakutsi zion, ondo erakutsi ere, gerora hiriko aberatsen jostun ibiliko baitzen.

Gure etxea zahar-zaharra zen, alokatua, eta amak lotsa pixka batekin hartzen zituen hiritik soinekoak probatzera etorritako emakume aberatsak; etxeari, zaharra izateaz gainera, oilategi-usaina baitzerion.

Ni haur gaixobera nintzen; neguan, eztarritik noiznahi gaixotzen nintzen, sukar ikaragarriekin, eta sarri geratzen nintzen eskolara joan ezinik. Halakoetan, amari begira egoten nintzen, nola ebakitzen zituen oihalak, nola josten, nola botoiak ipintzen eta nola lisatzen. Batzuetan, emakume aberatsei soinekoak probatzen ari zelarik, ate zaharraren zirrikitutik begira egoten nintzaian, eta, behin, haietako batek harrapatu egin ninduen, eta oraindik ere lotsagorritu egiten naiz gogoratze hutsarekin.

Ama josten, eta ni begira. Kontu kontari hasten zitzaidan, haurtzaroko oroitzapenak, aspaldiko kontuak, amonari ikasitako ipuinak...; eta ozenki irakurrarazi ere egiten zidan, berak entzuteko; eta matematikako ariketak ere azaldu behar izaten nizkion, juxtu-juxtu baitzekien kontuak ateratzen. Bion artean idazten genituen emakume aberatsei kobratzeko fakturak: *tela, tanto; botones, tanto; manobra, tanto; en total, tanto.*

Eskolako ariketa zailekin, aitak laguntzen zidan. Amak ez zion afaltzen uzten lan haiek amaitu arte.

–Batxiler batek jakin behar du hori eta gehiago.

Ahal genuen diru guztia aurrezten genuen. Amaren ilusioa zen egunen batean hirian pisu bat erosteko sarrera-kopurua aurrezte. Nik eltzetxoan neukan guztia ere amari emateko asmoa nuen, ditxosozko pisua erosteko. Etxe berrian lotsarik gabe hartuko genituen hiriko emakume aberatsak, eta jostun-degian oihalek ez zuten oilategi usainik hartuko.

Nik batxilergoa egitea nahi zuen amak, eta irakasle edo apaiz izatera iristea. Nik baietz-baietz egiten nion buruaz, baina bihotzaren barruan kamioizale izan nahi nuen, etxekoneko nire lagunaren aita bezala. Askotan, errepide nazionalera jais-ten ginen laguna eta biok, eta zubian itxaroten genuen, kamioiaren ate ertzean zutik jarrita itzultzeko.

Igandeetan, aitari irakurtzea gustatzen zitzaion, batez ere eguraldi txarra egiten zuenean. Noizbehinka, hirira eramaten gintuen ama eta biok, eta zinera joaten ginen, eta gozoki-den-

dara. Pastelak eskatzen zituen aitak, dozena bat; amak bat hartzen zuen, eta beste puska txikiren bat gehienez; nik bi; hiru, asko jota; aitak, berriz, gainerako guztiak, erraz asko; eta mostradoreko pastelei begira jartzen zen, eta amak ezetz egiten zion buruaz, “kalte egingo dizu, badakizu, gero gau osoan ohean bueltaka”; eta aitak etsia hartzen zuen.

Igande batzuetan, aitak ez zuen egongelan irakurtzen, bere logelan baizik, atea itxita.

–Zer ari da irakurtzen aita?

–Bere gauzak. Ez sartu orain. Ez zaio gustatzen.

Eta misterioa zen hura.

Beste batzuetan, etxekoneko kamioizalea etortzen zen gure-ra, eta aita eta biak hizketan aritzen ziren egongelan, atea itxita orduan ere. Eta ni, amarekin sukaldean.

Etxekonekoak, jertsearen azpian paperak ekartzen zituen, eta paperak eramane. Nik antzeman egiten nion, batzuetan paper muturra agerian zuela irteten baitzen.

Ez dut inoiz ahaztuko aitak eta amak nire aurrean errietan egin zuten eguna. Beste batzuetan ere errieta pixka bat egiten zuten, bai, baina elkarrekin hain haserre ez nituen inoiz ikusi. Eta, jakina, izuak jota geratu nintzen.

Amaren anai-arreba guztiak Iberdueroko akzioak erosiak zituzten, inondik ere, eta diru asko irabazten ari omen ziren. Amak pisurako dirua lortzeko abagunea ikusi zuen. Aitak, ordea, ez zuen ezertxo ere jakin nahi.

–Zure senide horiek diruzale hutsak dira. Baina, gutxiena uste dutenean, ikusiko duzu: hondoa jota geratuko dira. Hori jokoan aritzea bezalaxe da.

Amak oso maiteak zituen anai-arrebak, eta gorri-gorri jarri zen, haserre bizian. Aitak, ordea, hizketan jarraitu zuen.

–Ez dut familiaren etorkizuna arriskuan jarriko, horiek bezala.

Orduan lehertu zen ama.

–Familia arriskuan? Eta zuk zer dabilkizu etxekonekoarekin? Zer dira paper ziztrin horiek? Ez naizela konturatu uste al duzu?

Aitak buelta hartu, atetik irten, eta tabernara aldendu zen. Leihotik begira egon nintzaion. Ama logelan sartu zen. Atera hurbildu nintzen, eta belarria itsatsi. Negarrez ari zen, zotinka.

Oso berandu itzuli zen aita. Esna nengoen artean. Ate zirrikitutik begira jarri nintzaion. Balantzaka sukaldera sartu, kostata aulki baten gainera igo, armairuaren goiko aldeko ohol bat askatu, paper mordo bat atera, eta sutan erre zituen guztiak. Gero, mahai gainean etzan, eskua luzatu, eta argia itzali zuen.

Iberdueroko akzioak erosi genituen (nik ere eltzetxoko diruak hartan xahutu nituen), eta handik urte pare batera hirian jarri ginen bizitzen, pisu berrian.

**J. Kruz Igerabide**  
**Idazlea**





## Mundua on line

### Chrome nabigatzailea

Gaur egun, denbora dezente ematen dugu egunero Interneten, orduak eta orduak askotan. Segur aski, esan genezake webean nabigatzen autoan baino denbora gehiago pasatzen dugula. Eta hala ere, askok eta askok ez dakigu zein nabigatzaile erabiltzen dugun eginkizun horretarako. Orokorrean, ordenagailuarekin batera datorrena erabiltzen dugu, posta irakurri eta idazteko, edo Facebookaren bidez lagunekin harremanetan jartzeko.

Nabigatzaile baten bidez komunikatzen gara ingurunearekin, eta bost axola zaigu Internet Explorer, Safari ala Firefox den, lana ondo egiten badu behinik behin. Baina oraingoan, egoera pixka bat aldatu egin da.

Urte askotan Interneteko bilaketetan nagusitu ondoren, bertan mugitzeko modua aldatu nahi du Googlek. Duela urtebete, Chrome izeneko nabigatzailea erditu zuen Windowserako; ximplea, garbia eta azkarra. Pasa den abenduan Mac eta Linuxerako bertsioak atera zituen, eta horrek nabigatzaileen zerrendako 3. postura igo du, Internet Explorer eta Firefoxen atzetik. Egun, 40 milioi erabiltzaile ditu mundu osoan.

Chrome Googlek garatutako kode irekiko web nabigatzailea da, eta doan jaitsi daiteke [www.google.com/chrome](http://www.google.com/chrome) helbidetik. Google Chromeren atzean dagoen software libreko proiektuak Chromium du izena eta Creative Commons Aitorpena lizentziaren menpe dago. Izatez, Chromium nabigatzailean oinarritzen da Google Chrome eta, oro har, ezaugarri berdinak ditu, logotipoa eta Googleren euskarri komertziala izan ezik.

Erabiltzailearen interfazean ere aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren:

1. Segurtasuna eta egonkortasuna: aldiro, Googlek “zerrenda beltzen” eguneratze berriak deskargatzen ditu eta erabiltzaileari “zerrenda beltzeko” orrialde batean sartuko dela abisua ematen dio.
2. Prozesuen isolamendua: eginkizun ezberdinei prozesu ezberdinak esleitzen zaizkie, eta horrela, eginkizun batekin beste batekin ez interferitzea lortzen da. Chrome-ko fitxa bakoitza isolatu egiten da, software gaiztoak saihesteko.
3. Modu ezkutua: Googlek ezkutuan nabigatzeko aukera ematen du (Safarik eta Explorerrek bezala). Interneten pribatutasun osoz aritzea ahalbidetzen du, ez baita inon erregistratzen eta ez baititu fitxategi tenporalak gordetzen.

Google aurrera doa munduaz jabetzeko plangintzan. Aurten, Chrome sistema eragilea erabiliko duten netbook-ak aterako ditu. Zuzenean nabigatzailearekin irekiko dira, Windowsten inolako beharrik gabe. Microsoft erraldoiaren erreakzioaren zain gaude.

**Luis Elizondo**  
[luis@hegoa.info](mailto:luis@hegoa.info)

## IVAPek “Bikaintasunarekin Konpromiso Diploma” eskuratu du

Euskalitek, Bikaintasunerako Euskal Fundazioak, urtarrilaren 28an Bilboko Euskalduna Jauregian egin zuen ekitaldian, *Bikaintasunarekin Konpromiso Diploma* eman dio IVAPi. Diploma horren bidez, EFQM Bikaintasun ereduari jarraituz, IVAPek ezarri duen kudeaketa sistemari errekonozimendua aitortu dio.

Ekitaldi horretan IVAPekin batera arlo ezberdinetako beste 30 erakundek jaso dute errekonozimendu horixe bera; besteak beste, Ikerbasque Fundazioak, Arabako Abokatuen Elkargoak, Bizkaiko Teknologia Parkeak, Psikologia Fakultateak (UPV/EHU), hainbat ikastetxek...

Errekonozimendu diploma hau jasotzeko, erakundeek *kampo kontrastea* deritzon ebaluazio proba pasa behar izaten dute.

## Mendebalde Kultura Alkartearen XIV. jardunaldiak

Mendebalde Kultura Alkartearen XIV. jardunaldiak antolatu ditu maiatzaren 7an eta 8an “Bilbon Mundua Ikusi” izenburupean. Jardunaldi horiek Euskaltzaindiak Bilbon duen aretoan egingo dira (Plaza Barria 15).

Jardunaldi horietan parte hartuko duten hizlariak ditugu Joseba Zulaika, Aitor eta Pedro Zuberogoitia, Iñaki Gaminde, Jose Joaquin Gallastegi, Jose Angel Iriagarai, Manu Aurrekoetxea, Goizalde Landabaso, Asier Larrinaga eta Naroa Iturri. Aurten, Euskarazaleak taldea omenduko dute eta gorazarrea Angel Larreak eskainiko zaio.

Mendebalde Kultura Alkartea Alfonso Irigoien zuzendaritzapean sortu zen 1996ko udagoienera. Helburua mendebaldeko hizkera aztertu, egokitu eta prestigioatuz, euskara bera indartzea da. Argibide gehiago behar izanez gero, deitu 944028083 telefonora edo eta idatzi [mendebalde@euskalnet.net](mailto:mendebalde@euskalnet.net) helbidera. Elkartearen [www.mendebalde.com](http://www.mendebalde.com) webean ere sar zaitezke.

## Munduan euskal gaien inguruko interesa hazten ari da

Munduan euskal ikasketak ematen dituzten unibertsitateak ugaritu egin dira azken urteotan. Euskal gaiak leku txikia izan dute munduko unibertsitateetan, baina urtez urte, presentzia hau handituz doa. Euskal Herritik kanpo, 25 bat unibertsitatek dituzte euskal gaiak eskainitako ikasketak; gehientsuenak euskal erakundeekin izenpetutako hitzarmenen ondorio dira, hala ere, badago ekimen propioz sortutakorik ere. Eskoziako kasua aipagai. Hitzarmen hauen bidez, guztira 1.500 bat ikasle biltzen dituzte.


Horrez gain, orain arte zegoen euskal ikasketen zentro bakarrari (Renoko Euskal Ikasketen Zentroa) beste bi gehitu behar dizkiogu aurten: Boiseko Pete Cenarrusa Center for Basque Studies eta Frankfurtoko Goethe Unibertsitatea. Azken horretako fondo bibliografikoa aztertu nahi izanez gero, Interneten kontsulta daiteke [www.ab.uni-frankfurt.de](http://www.ab.uni-frankfurt.de) helbidean.

# “Terminologia eta aldaera geolinguistikoak” izeneko jardunaldiak

**Termcat terminologia-zentroak “Espais Terminològics” III. jardunaldia antolatu zuen 2009ko azaroaren 12an, Bartzelonan. Jardunaldiaren gaia “Terminologia eta aldaera geolinguistikoak” izan zen eta ia 200 lagun bildu ginen Bartzelonako Unibertsitateko eraikin historikoko areto nagusian. Termcat Kataluniako terminologia-zentroa da, erakunde hauen artean osatutako kontsorzioa: *Generalitat de Catalunya, l’Institut d’Estudis Catalans* eta *Consorti per a la Normalització Lingüística*.**

Terminologia eta aldaera geolinguistikoei buruzko jardunaldia hiru multzotan banatu zen. Lehenengo multzoko gaia “aldaera linguistikoak beste hizkuntzetan” izan zen; Salamanca Unibertsitateko Itzulpenzintza eta Dokumentazio Fakultateko Joaquín García Palaciosek azaldu zuenez, gaztelaniako terminologiarik ez da sortzen ikerketaren arloan, ikerketarako erabiltzen den hizkuntza nagusia ingelesa delako.

Bigarren multzoaren gaia “aldaera geolinguistikoak hiztegi-tan” izan zen eta hirugarren multzoarena, “aldaera geolinguistikoak komunikazio espezializatuan”. Multzo horretan hartu zuten parte Joan Vallès Botanikako katedradunak, Vicenç Roselló Geografiako katedradunak eta Jordi Leonert Arrantza Biologiako adituak. Gauza jakina da terminologiak ez duela aldaera geolinguistiko nabarmenik izaten lexiko arruntarekin alderatzen badugu. Hala ere, jakintzaren hainbat arlotan, hala nola botanika edo geografia fisikoa, aldaerak maiz samar izaten dira eta, beraz, beharrezkoa gertatzen da aniztasun hori egoki adierazteko aukera emango duten irizpideak kontuan hartzea, dialektoak errespetatzeko eta, aldi berean, komunikazio espezializatuak behar duen zehaztasuna ziurtatzeko. Nahiz eta terminologiaren teoria orokorrak termino ideala definitzerakoan monosemikoa (termino bat ➔ kontzeptu bat) izan behar duela dioen, aipatutako adituak hiztegi-tan beren arloetako aldaera guztiak jasotzearen alde azaldu ziren. Kontuan izan behar da, hala ere, terminologia eta lexikologia ez direla gauza bera, eta beraz, ez dituztela xede berberak. Lexikologia hitzunez erabiltzen dituzten hitzak jaso eta deskribatzeaz arduratzen da. Terminologiak, ordea, hizkera espezializatutako kontzeptuak jasotzen ditu eta kontzeptu horiek deskribatzeko hitzak bilatzea du xede. Lexikologia hitzetan oinarritzen da eta terminologia, kontzeptuetan.



Jardunaldiaren osagarri gisa erakusketa bat ere izan zen, landareen izenak erakusten zituzten panelen bidez, landareen izenetan aldaera geolinguistiko bereziki nabarmena baita. Jardunaldiotako hizlari gehienak katalanez aritu ziren, baina gaztelaniarako interpreteak izan ziren bertan. Termcat terminologia-zentroak bi urtean behin antolatzen ditu “Espais Terminològics” izeneko jardunaldiak, terminologiako eta terminologiarekin lotutako diziplinetako adituen artean eztabaida sortzeko asmoz.

Jardunaldion lehenengo edizioan, 2005ean, terminologiaren normalizazioa izan zen gaia; katalanez egiten den terminologiak bereziki ingelesa nagusi den ingurune eleaniztunean izan dezakeen etorkizunaz eztabaidatu zuten. Zientzia katalanez sortzea bideragarri izan ote daitekeen aztertu zen, kontuan hartuta zabalkunde handieneko aldizkari espezializatuaren artean ingelesa nabarmen nagusitzen dela, eta terminologia katalanari buruzko gogoeta ere egin zen, plataforma digitalean eta komunikazioko euskarri berrietan nagusitzen diren hizkuntzen artean katalana nola bizi daitekeen aztertuz.

Bigarren edizioan, 2007an, neologia eta mailegatutako hitzak (beste hizkuntzetatik hartzen diren hitzak) jorratu ziren. Izan ere, mailegua da eztabaida gehien eragiten duen baliabidea, hizkuntza bakoitzaren berezko fisonomiari eusteko arriskutsutzat jo daiteke eta. Gainera, azken urteotan aldaketa nabarmenak izan dira: batetik, globalizazioak dakarren informazio-truke azkarra, gauza berrien zabalkunde azkarra, Internet ezarri izana eta ingelesa *lingua franca* gisa sendotu izana; bestetik, inmigrazioak eragindako lexiko berrikuntza gastronomian, erropetan, ohitura erlijiosoetan eta abarretan. Suedian terminologian egiten den lana ere azaldu zuten. Eta jardunaldian atera zen ondorioetako bat izan zen maileguak hartzerakoan, aurkakoak diruditen bi gauzen arteko oreka bilatzen saiatu behar duela terminologiak: hizkuntzaren jatorria errespetatu eta hizkuntzak etorkizunari begira behar duen bilakaera azkarra. Horixe da-eta hizkuntza eguneratua, modernoa eta hizkuntzaren beraren erroarekin fidela lortzeko modua.

**Maite Imaz**  
IZOko terminologia-atala

# Ebazten dut

Iya guriak egin du,  
badegu zeñek agindu.

Xenpelar  
(Errenteria, 1835 – 1869)

**Min. Min ematen dit** gure aldizkari ofiziala irakurtzeak. Min ematen dit belarrian, “aginDU dut”, “ebaTZI dut” eta antzekoak irakurtzen ditudan bakoitzean. Baina zer miramendu merezi du nire belarri gaixoak? Gaizki ohituta baldin badut, neurea izango da errua.

Egia da baseritarrek “hitza ematen diat” –edo “hitza ematen dinat”– esanez ematen ziotela elkarri hitza, eta hala ematen diotela oraindik ere. Eta bazekitela, eta badakitela, hori esatean ez zirela, eta ez direla, soilik hizketan ari. Baina zer prestigio eman behar dio baseritarren hizkerak euskarari?

Egia da kaletarrok ere geureganatuak ditugula baseritarren ohitura zaharrak eta txarrak. Eta euskaldun berri askok eta askok ere bai, zoritxarrez nonbait, euskaldun zaharronak. Baina zer balio du jende xumeon euskara xumeak?

Egia da, era berean, Elizak aspalditik dakiela, adibidez, “nik bataiatZEN zaitut” esanez bataiatzen direla gizakiak edo “nik barkaTZEN dizkizut bekatuak” esanez barkatzen zaizkiela bekatariari bekatuak. Eta badaki, orobat, kontua ez dela hitz hutsaletan gelditzea; sakramentuek egin egiten dutela, alegia. Baina Elizak irakatsi behar al digu hizketan ere?

Okerrena da, ordea, ezkontza zibiletan ere antzeko formulak erabiltzen dituztela juzgatuetan-eta: “nik, ....-k, zu, .... , harTZEN zaitut emaztetzat”, “nik, ....-k, zu, .... , harTZEN zaitut senartzat”. Baina zer arraio egiten dute horrelako formulek juzgatuetan-eta? Ai, Elizaren itzal luzea!

Eskerrak, geure buruen jabe egin garenean –ez nahiko genukeen adina, baina tira!–, geuk aterako dugun euskara gaixoa betiko putzu ilun eta zoko beltzetatik.

Bai. Iritsi zitzaigun, noizbait, legeak, aginduak, ebazpenak eta xedapenak gure aldizkari ofizialean goi-mailako euskararen nola eman erabakitzeko ordua ere. Arreta handiz begiratu genion lexikoari: orden = agindua, resolución = ebazpena... Aditza eta adizkiak ere arautu genituen, zorrotz

bezain arrotz: ordeno = aginDU dut, resuelvo = ebaTZI dut... Eta hala jarri zuen indarrean Eusko Jaurlaritzak zorioneko agindu hura: Lege Egitasmoak, Dekretuak, Aginduak eta Erabakiak lantzeko jokabideak arautzen dituena (EHAA: 1993.04.19).

Laster beteko ditu aginduak hogeitun urte. Eta haren arabera jarraitzen dugu idazten, oraindik ere, legeak, aginduak, ebazpenak eta gainerakoak. Nola, bestela?


Egia da, bai, gero eta gehiagori ematen digutela min “aginDU dut” eta “ebaTZI dut” horiek. Baina nori axola zaizkio gure belarri minduak? Okerrena da, ordea, gero eta gehiago ari garela konturatzen zer gertatzen den agindu eta ebazpen horietan: agindu eta ebatzi, erdarazkoek agintzen eta ebazten dutela (“ordeno” eta “resuelvo” zuzen eta egoki horien bidez); eta euskarazkoak, aldiz, noizbait agindu eta ebatzi dela esatera mugatzen direla, eta ez dutela benetan agintzen eta ebazten.


Agian, halako asmo eta jokabide isil bezain argitzailea izango zuten, beharbada, 1993ko agindu haren euskal bertsioa egin zutenek. “Behingoz argi gera dadila zein hizkuntzako testuak balio eta ebazten duen: ebatzi, erdarazkoak ebazten duela (“resuelvo”); eta euskarazkoa, berriz, erdarazkoak ebazten duela esatera mugatzen dela. Alegia, arrazoi zuela errenteriarrek, “badegu zeñek agindu” hura kantatu zuenean. Hori baino egia berdaderoagorik! Bertsolari bikaina ez ezik, neurritz kanpoko igarlea ere bazen hura, nonbait.

Bai. Min ematen dit gure aldizkari ofiziala irakurtzeak. Min ematen dit belarrian eta bihotzean, “ebaTZI dut” eta antzekoak irakurtzen ditudan bakoitzean.

Hala ere, pozgarria da ikustea, gero eta gehiagotan, Austinen obra ospetsuaren aipua gure lanen bibliografietan, bai jatorrizko hizkuntzan –*How to Do Things with Words*–, bai gaztelaniazko itzulpenean –*Cómo hacer cosas con palabras*–. Aipatu behintzat bibliografietan. Nonbaitetik hasi beharra dago. Beste kontu bat dela liburua irakurtzea? Konforme. Eta, irakurri ez ezik, ulertu ere egin behar dela? Baita ere. Eta ez dagoela ulertu izanaren ezaugarri hoberik, eta ia bakarrik, aplikatzean asmatzea baino? Eman dezagun hala dela hori ere. Baina ez da gutxi, ez, bibliografietan aipatzea eta testuetan Austinek omen dioena gogoratzea. Etorriko da liburua bera irakurri, ulertu eta zuzen aplikatzeko ordua ere. Noizbait geureganatuko dugu oinarritzko kontzeptua, Austinek *performative utterance* terminoaz bataiatu zuena; gaztelaniaz *expresión realizativa* itzuli dutena; eta euskaraz *adierazpen gauzatzailea* esanez erabil dezakeguna, batik bat *gauzatzailea* azpimarratuz.

Eta, agian, noizbait itzuliko dugu euskarara Austinen liburu hori ere, adibide eta guzti, bakoitzaren testuingurua ondo zehaztuz; beti baita erabakigarria testuinguruarena. Bitartean, ongi etorriko zaizkigu gaztelaniazkoak ere:





“Sí, juro (desempeñar el cargo con lealtad, honradez, etc.)”, expresado en el curso de la ceremonia de asunción de un cargo.

“Bautizo este barco *Queen Elizabeth*”, expresado al romper la botella de champaña contra la proa.

“Lego mi reloj a mi hermano”, como cláusula de un testamento.

“Te apuesto cien pesos a que mañana va a llover”. [Apustua benetan eginez.]

Eta, behin ondo konturatu ondoren zer egiten duten esaldi horiek, bakoitza berari dagokion testuinguruan eta egoera komunikatiboan behar bezala erabiltita (egin egiten dutela une horretantxe, eta hitz horiexen bidez egin ere, kasuan kasuko ekintza gauzatuz: *zin egin, bataiatu, testamentuz utzi, apustu egin*), agian orduan eroriko gara gu ere zalditik, argiak erabat itsututa, Damaskora zihoan fanatiko hura bezala.

Bitartean, bizi gaitezen euskaraz, belarriak erne eta begiak argi. Eta ohartuko gara, pixkana-pixkana, uste baino esaldi eta sekuentzia eta testu gauzatzaile gehiago erabiltzen ditugula, ahoz nahiz idatziz.

Gogoratzen, esaterako, zenbait euskaldun ezagunek 2008ko maiatzaren 15ean sinatutako agiria, giza eskubideen aldarrikapen unibertsalaren 60. urtemuga ospatzean? “Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala ospatzeko euskal kanpaina” du izenburu. Eta pasarte batean, adibidez, honelaxe dio:

Agiri hau dugu konpromisoaren adierazpena. Giza duintasunaren eta oinarrizko eskubideen lehenetsuna (ongia) **aldarrikatzen dugu**, haien zeinahi urraketari (gaizkia) kontrajarriak. Agiri honen sinatzaileok **berretsi egiten dugu** gizaki guztien giza eskubide guztiekiko konpromiso behin betikoa. Dena dela, eskubide urrakorrenei erreparatzen diegu bereziki, bai gure herrian bai munduan. Hala, bada, konpromiso orokor hori harturik, beste zehatzago batzuk ere **gureganatzen ditugu**.

Badaezpada, azpimarratu egin ditut adizki gauzatzaileak, behingoz argi gera dadin zein den euskaraz horiei dagokien forma: “aldarrika**TZEN** dugu”, “berretsi egi**TEN** dugu”, “guregana**TZEN** ditugu”. Oraindik ez baitugu belarria erabat galdu.

Egia da, era berean, agiri horren sinatzaileen artean badela baserrian jaiotakorik eta seminarioren batetik pasatakorik. Baina den-denak artaburutzat jotzea ere! Hona hemen horien izen-deiturak, banan-banan: Txaro Arteaga, Bernardo Atxaga, Nestor Basterretxea, Garbiñe Biurrun, Gurutze Irizar, Mikel Laboa, Gorka Landaburu, Anjel Lertxundi, Ramón Múgica, Dora Salazar eta Joan Mari Torrealdai.

Horregatik, nik behizat “eba**ZTEN** dut” idazten jarraituko dut eta “eba**ZTEN** dut” bihurtzen, egoskor-egoskor, nire eskuetatik pasatzen diren ebazpen-gai guztiak. Baina, lasai. Beti egon da-eta, aldizkari ofizialean argitaratu arteko bide luzean, esku zuzentzailearen bat –hain da luzea Inkisizioaren besoa ere!– adizki hori ortodoxiara ekarri eta egiarik berdaderoena gogoraraziko diguna, erreteriar bertsolari igarle haren hitzen oihartzun.

Eskerrak, “badegu zeñek agindu” ez ezik, “ia gureak egin du” ere kantatu zuen; eta hau, aukeran, “ia bizirik gaude” izugarria baino esperantzagarriagoa den.

## Ohar bibliografikoak

Izango da, noski, kontu hauek patxadago landu nahiko dituenik. Gauzak erro-errotik hartzeko, ezinbestekoa da Austinen liburua:

**Austin, J.L.** 1962. *How to Do Things with Words*. Oxford. [Gaztelaniaz: *Cómo hacer cosas con palabras*. Barcelona: Paidós; 1982.]

Neronek ere landua dut gaia, Austinen esanak euskarara ekarri nahian, artikulua honetan baino doinu akademikoago eta, agian, egokiagoan. Baina, inork gutxik kasu egiten didanez, hots eta zalaparta handiagoak ateratzea erabaki dut oraingo honetan, soldaduska egin zuten lagunen aholkuei kasu eginez: “han, dioska jardun ezean, ez zian inork kasu zipitzik egiten”. Dena den, doinu baketsuagoa maite duenak honako honetan du nire azken lana, eta landuena:

**Hizpide, 71:** 33-39. or.

Doinu zibilizatuagoa ez ezik, lan horretan aurkituko du, besteak beste, informazio xehe eta ugariagoa ere; eta, gainera, “Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala ospatzeko euskal kanpaina” agiria osorik, nire zenbait iruzkin xume ere lagun dituela. Baina sarean ere badago agiria. Esaterako, honako helbide honetan:

[www.ikasbil.net/jetspeed/](http://www.ikasbil.net/jetspeed/): 403296

Eusko Jaurlaritzaren zorigaitzoko agindua, berriz, lehentxeago ere esan dut non aurkitu:

**Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria [EHAA]**. Agindua, apirilaren 6koa, Lege Egitasmoak, Dekretuak, Aginduak eta Erabakiak lantzeko jokabideak arautzen dituen. [1993.04.19]

Eta, hain zuzen, data horren ondorengo EHAA aldizkari guztietan duzu, zoritxarrez eta tamalez, behin eta berriro, lan honetan salatzen saiatu naizena. Noiz arte?

**Pello Esnal**

# A gripeari aurre egiteko neurriak ezbaian

lazko udaberrian A(H1N1) gripearen *mamua* munduan hedatzen hasi eta egoera pandemiatzat jo zuen Osasunaren Mundu Erakundeak (OME). Zenbait laborategi txertoak egiten hasi eta munduko gobernuek milioika txerto erosi zituzten, OMEren aholkuei jarraituz. Gaixotasuna agertu eta urtebetera, pandemiaren eragina ez da espero bezainbestekoa izan oraingoz. Horrez gain, Europako Kontseiluak ikerketa bat abian jarriko du, OMEren eta laborategien arteko harremana zein den zehazteko. Botika enpresek alarma pizten behar baino eragin handiagoa izan ote duten ikertuko du. Kritikoek salatu dutenez, farmazia industriaren irabaziak izugarriak izan dira.



**Gabriel Zubillaga**  
Donostia Ospitaleko  
Barne Medikuntzako  
burua eta EHUKo  
irakaslea

**“Gaixotasuna zabaltzea baino hobea da neurriak hartzea”**

**Zer da pandemia bat? A gripearekin gertatu dena pandemia izan da?**

Aurreneko kasuak aztertu eta konturatu ziren birus berri bat zela, 1918ko gripearen antzekoa, baina oraingoak zortzi andui desberdin nahastuta zituen. Jendeak ez zeukan anti-gorputzik birus berriari aurre egiteko. Horrek kezkatu egin zuen OME eta pandemia egoera deitu zuen.

**Benetako pandemia izan da ala farmazia enpresen manipulazioa dago horren atzean?**

Kritika hori egin da, baina ni ezezkoan nago. Pandemia izan da. Epidemiologoaren gomendioen arabera, laborategiak txerto berria egiten hasi ziren. Bitartean, herrialde guztiak kezkatuta, ez ote zen nahikoa txerto izango. Gero, batzuek esan dute txerto berriak minbizia sortzen duela, etab. Kritika horiek ez dute oinarri zientifikorik. Txertoa egiteko metodoa ohikoa izan da. Beste batzuek kritikatu dute laborategiek ez dituztela argitaratu txertoaren eragina zalantzan jartzen zuten zortzi argitalpen. Orain, OMEk aztertu egingo ditu argitalpen horiek, laborategiek iruzurra egin duten argitzeko.

**A gripeari aurre egiteko hartu diren neurriak dagokienez, gehiegizkoak izan al dira?**

Ez dut uste zorrotzeak izan direnik. Nik sinesten dut prebentzio neurrietan. Gaixotasuna zabaltzea baino hobea da neurriak hartzea. Zer gertatuko zen pandemia larria izan eta jende asko hil izan balitz? Txertoak onak dira; zenbat eta txerto gehiago hartu, norberaren sistema immunologikoak defentsa gehiago dauka. Birus hori oso arina izan da, baina oraindik ez da amaitu. Berritri indarra har dezake.

**Etorkizunera begira, zein da gertatu den honetarik atera behar dugun ikasbidea?**

Etorkizunean, jendeak gero eta gehiago hartuko du gripearen kontrako txertoa. Egia da txertatutako milioi bat pertsonatik

bik gaixotasun neurologikoak izan ditzaketela. Baina txertorik hartzen ez bada, gehiago hil daitezke. Izurri asko dago munduan eta, horregatik, beti adi egon behar dute munduko erakundeek.

**Juan Luis Uria**  
OSALDE Osasun  
Eskubidearen Aldeko  
Elkarteko Zuzendaritzako  
kidea

**“Botika enpresen edo komunikabideen manipulazioa ez dira berriak”**



**Zer da pandemia bat? A gripearekin gertatu dena pandemia izan da?**

OME eta gobernuak egoerarik okerreanean jarri ziren, eta hegazti-gripearen ereduarekin estrategia bat prestatu zuten biztanleak babesteko; hegazti-gripe oso kutsakorra eta hilkorra izan zen. Negu australa pasa zenean, hilkortasun tasa txikia zela ikusi zen, ordea, eta beraz, uste dugu datu horiekin estrategia alda zitekeela.

**Benetako pandemia izan da ala farmazia enpresen manipulazioa dago horren atzean?**

Bidezkoa da pentsatzea kutsatu kopurua zenbatu dena baino handiagoa izan dela; horrek esan nahiko luke hilkortasuna uste zena baino txikiagoa izan dela. Botika enpresen edo komunikabideen manipulazioa, edo eurek osasun agintariei eta gobernuari egiten dieten presioa ez dira berriak. Azken urteotan diru mugimendu handiak antzematen dira txertaketa politiketan. Tamiflua erosterakoan, Europako gobernuak lehian zeudela ematen zuen. Izua sortu dute gizartean.

**A gripeari aurre egiteko hartu diren neurriak dagokienez, gehiegizkoak izan al dira?**

Birusari eusteko eta horren eragina gutxitzeko OMEk gomendatutako neurriak egokiak izan dira. Baina OME bera neurri gabeko arretan murgildu da eta hor dena korapilatzen joan da. Komunikabideek eta pertsona batzuek nahasmendua sortzen lagundu dute. H1N1 txertoak immunogeneitate maila oso altua eta reaktogenizitate baxua agertu ditu.

## **Etorkizunera begira, zein da gertatu den honetatik atera behar dugun ikasbidea?**

Farmazia industriaren interesak osasungintza publikoaren interesetatik bereizi behar dira. OMEk gardena eta garbia izan behar du industriarekiko harremanean, eta nazioartean duen sinesgarritasunari eutsi behar dio. Gobernuak ez lituzkete zentzugabeko erosketak egin behar, eta gizartea babesteko bere ekintzak konplexurik gabe azaldu behar lizkiekete herritarrei. Komunikabideek informatu egin beharko lukete, ez pertsonak manipulatu.



**Mercedes Estebanez**  
Eusko Jaurlaritzaren  
Osasun Publikoaren  
Zuzendaria

**“Gripe pandemiak aurreikusezinak eta gobernatzeko zailak dira”**

## **Zer da pandemia bat? A gripearekin gertatu dena pandemia izan da?**

Gertakari epidemiologikoa da pandemia bat; infekzioa sortzen da gehienetan, bere eragin handiagatik eta kutsatzeko gaitasunagatik. Munduan, biztanle kopuru handi bati azkar eragiten dio. XXI. mendeko lehen pandemia izan da A gripea.

## **Benetako pandemia izan da ala farmazia enpresen manipulazioa dago horren atzean?**

Inork ezin zuen jakin ze bilakaera izango zuen birusak eta ze eragin izango zuen, 2009ko martxoan sortu zenean. Momentu hartan bertan hartu behar ziren erabakiak, eta logikoa denez, okerrena etor zitekeela pentsatuta egin zen. Pandemiatzat jotzeko, hori eragiteko gaitasunik ez daukate farmazia-enpresek.

## **A gripeari aurre egiteko hartu diren neurriei dago kienez, gehiegizkoak edo zorrotzeziak izan al dira?**

Gripe pandemiak aurreikusezinak eta gobernatzeko zailak dira. XX. mendean hiru gripe pandemia egon ziren eta milioika pertsonarengan izan zuten eragina. Beraz, pandemia horrek izan zezakeen eragina kontuan izanda, hartutako neurriak egokiak izan dira. Neurri horien protokoloak finkatuta eta prestatuta zeuden 2003an H5N1 hegazti-gripearean mehatxua agertu zenetik. Pandemia horrek iraun duen denboran, bost fasetan diseinatu dira antolakuntza neurri guztiak Euskadin. Hirugarren fasera heldu gara, baina mailarik baxuenean. Abian jarri beharreko baliabideak ongi neurtzeko aukera eman du modu mailakatuan egiteak.

## **Etorkizunera begira, zein da gertatu den honetatik atera behar dugun ikasbidea?**

Mundu globalizatu honetan inoiz baino ageriagoan daude pandemia arriskuak, eta beraz, horri aurre egiteko prestatuta egon behar dugu. Hala ere, birusak eta bakterioak ordu gutxi batzutan

zabaltzen dira gure planetan, eta hori kontrolatzetik urrun gaude oraindik. Biztanleei arriskuen berri emateko moduak hobetu egin behar ditugu. Hori zaila da, baina ezinbestekoa.

**Salvador Macip**  
Sendagilea, idazlea eta  
ikerlaria Leicesterreko  
Unibertsitatean



**“Zuhurrak izateko eta ahal ziren txerto dosi guztiak lortzeko nahikoa arrazoi izan da”**

## **Zer da pandemia bat? A gripearekin gertatu dena pandemia izan da?**

Munduko Osasun Erakundearen irizpideak jarraituta, planetako zoko guztietara iritsi den infekzio bat deskribatzeko erabiltzen dugu pandemia hitza. Beraz, gaixoen kokapen geografikoaz ari gara, gaixo kopuruaz edo larritasunaz baino. Definizio horren arabera, A gripea pandemia izan da, baina arina.

## **Benetako pandemia izan da ala farmazia enpresen manipulazioa dago horren atzean?**

Benetakoa da. Pandemia sortzen duen A(H1N1) birusa berria da; horregatik, ez genekien osasun arazo larriarik sortuko zuen. Hori dela eta, egoerarik okerrenerako prestatu gara, adituen gomendioak jarraituta beti ere. Frogatu egin beharko da farmazia enpresek OME erakundearen presionatu duten. Osasungintza-aren ikuspuntutik begirata, zuhurrak izateko eta ahal ziren txerto dosi guztiak lortzeko nahikoa arrazoi izan da.

## **A gripeari aurre egiteko hartu diren neurriei dago kienez, gehiegizkoak edo zorrotzeziak izan al dira?**

Beharbada ez dira perfektuak izan, baina egokiak izan dira. Ezagutzen ez dugun mikrobio batek eragindako pandemia baten aurrean, prebentzioa ahalik eta zorrotzena izatea da zentzuzkoena. Pandemia arina izango zela jakiteko modurik ez zegoen. Orain ere ezin dugu ziurtatu aurten beste gaixoaldi gogorragorik izango ez denik. 1918ko gripearean lehen fasea ere nahikoa arina izan zen, hilabete batzuk geroago etorri zirenekin alderatuta. Oraingo pandemiarekin, beharrezkoa ez den alarmismoa egon da eta hori saihestu egin behar da. Hala ere, une honetan ikusten dugun konfiantza eta ardura falta ere arriskutsuak izan daitezke.


## **Etorkizunera begira, zein da gertatu den honetatik atera behar dugun ikasbidea?**

Pandemia baten arriskuak hobeto jakinarazten jakin behar da. Biztanleak osasun erabakietan inplikatzeko jakin behar da, gehiegi izutu gabe. Txertoak egiteko dugu gaitasuna handitu egin behar dugu. Dosi asko soberan geratu dira, baina pandemia benetan larria izan balitz, dosirik ez zen izango guztizentzat.

**Nerea Pikabea**  
Kazetaria

# Administrazio orokorreko hizkuntza eskakizunak

## Azterketa eredu berriak



### Europako Kontseiluak Europako Erreferentzia Marko Bateratua (EEMB) onartu zuen 2001ean, hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako.

Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratua Europako Kontseiluko herrialde guztietako Hizkuntzalaritza Aplikatuaren eta Pedagogiaren arloetako adituek egindako lanaren emaitza da. Ikerketa eta galdeketa zabala erabilia garatu den tresna praktikoa da, ikas prozesuan mailaketak zehazteko estandar garbiak eskaintzen dituena eta ikasleen emaitzak nazioartean era konparagarrian ebaluatzeko aukera ematen duena. Horregatik guztiagatik, egoki iritzi zitzaion euskararen hizkuntza ezagutzak egiaztatze sistema ezberdinak horretara moldatzeari.

Hala, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatzeko eta eurok Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitze, 64/2008 DEKRETUA argitaratu zen 2008ko apirilaren 8an.

Dekretuaren 3. artikulua, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako 1.HE, 2.HE, 3.HE eta 4.HE Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Europako Marko Bateratuaren B1, B2, C1 eta C2 mailekin parekatzen ditu, hurrenez hurren.

Dekretuak azaltzen duenez, euskararen ezagutza egiaztatze bide ezberdinak egonda, beharrezkotzat jotzen da irizpide bertsuei jarraitzea prestakuntzan eta hizkuntza-ezagutzen ebaluazioan, arlo ezberdinetako titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak gauzatzeko.

Beraz, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua oinarri harturik, titulu eta ziurtagiri ezberdinak egiaztatzen dituzten hizkuntza gaitasunak aztertu ziren eta egokiak ziren

baloratu zen. Euskararen ezagutza egiaztatze dauden sistema ezberdinetan egokitzapenak egin beharko zirela izan zen ondorioa, baliokideak ziren titulu eta ziurtagiriek euskar maila bera egiaztatu dezaten.

Egin beharreko egokitzapen horiek, bada, aldaketak ekarri dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako lanpostuei dagozkien hizkuntza eskakizunak neurtzeko azterketetan. Hauexek dira esanguratsuenak:

- Entzutezko ulermena (entzumena) neurtzeko berariazko probak ezarri dira maila guztietan.
- Azterketariaren ulermen maila -bai ahozkoa (entzumena), bai idatzizkoa (irakurmena)- modu fidagarrian neurtzeko, adituek aholkatu bezala, gutxienez hiru ataza jarri dira eta guztira gutxienez 25 item dituzte.
- Idatzizko adierazpena (idazmena) neurtzeko proban ataza bat baino gehiago ipini da, gai eta diskurtso-tipologia desberdinetan azterketaria nola moldatzen den neurtzeko.

Ahozko adierazpena (mintzamina) neurtzeko proban bakar-kako diskurtsoa eta elkarreraginezkoa neurtu behar direnez, azterketariak binaka -edo hirunaka, egoerak hala eskatzen duenean- sartuko dira ahozko azterketara eta diskurtso-mota horiek neurtuko dituzten atazak egingo dituzte.

Hara hemen honako lauki hauetan azalduta, hizkuntza eskakizunetako azterketen ezaugarri berriak. Argibide gehiago nahi izanez gero, sartu helbide honetara:

[www.ivap.euskadi.net](http://www.ivap.euskadi.net)

	ENTZUMENA	IRAKURMENA	IDAZMENA	MINTZAMENA
1HE (B1)	<p>▶ 30-35 min.</p> <p>▶ Gutxienez hiru entzungai / hiru ariketa.</p> <p>Entzungaien iraupena guztira, 10 min.</p> <p>Entzungai bakoitza bi aldiz entzungo da.</p> <p>Gutxienez 25 item, hiru ariketatatan banatuta.</p> <p><b>Ariketa motak:</b> aukera anitzeko galderak, egoerak identifikatu / loturak egin, taulak osatu, erantzun laburreko galderak, hutsuneak bete, egia/gezurra eta abar.</p>	<p>▶ 50 min.</p> <p>▶ Gutxienez hiru testu / hiru ariketa.</p> <p>Testuen luzera guztira: 1.000 hitz gehienez.</p> <p>Gutxienez 25 item, hiru ariketatatan banatuta.</p> <p><b>Ariketa motak:</b> aukera anitzeko galderak, egoerak identifikatu / loturak egin, taulak osatu, hutsuneak bete (cloze testa, esaldiak txertatu...), paragrafoak ordenatu, egia/gezurra eta abar.</p>	<p>▶ 60 min.</p> <p>▶ Bi ariketa, gai eta diskurtso-tipologia desberdinetakoak.</p> <p><b>1. ariketa:</b> gutxienez 50 hitz. Argibideak / informazioa eman edo helarazteko mezu elektroniko labur, ohar, iragarki, bilera dei...</p> <p><b>2. ariketa:</b> gutxienez 100 hitz. Interesak, erreakzioak, gertaerak, iritzia, informazioa eman/eskatu/egiaztatze eskutitz formal/informal, artikulua labur eta erraz, kontakizun labur, deskribapen...</p>	<p>▶ 15-20 min.</p> <p>▶ Bi azterketari arituko dira. Aldez aurretik ezer prestatu beharrik ez.</p> <p><b>0. Aurkezpena:</b> (Ez da ebaluatuko). Azterketariak labur-labur euren burua aurkeztu.</p> <p><b>1. ariketa:</b> (Bakarriketa). 3 min. Argazki/grafiko/ 10 hitzeko testu laburrean ikusitakoaren aurrean bere iritzia eman.</p> <p><b>2. ariketa:</b> (Bat-bateko elkarrizketa). Argazki bidez, gai bati buruzko hainbat aukera/egoera desberdin. Adostasun/akordio batera iritsi behar diren egoera bat aurkeztuko zaie. Helburua: negoziatu, informazioa trukatu. (6 min.)</p>
2HE (B2)	<p>▶ 35-40 min.</p> <p>▶ Gutxienez hiru entzungai / hiru ariketa.</p> <p>Entzungaien iraupena guztira, 10-12 min.</p> <p>Entzungai bakoitza bi aldiz entzungo da.</p> <p>Gutxienez 25 item, hiru ariketatatan banatuta.</p> <p><b>Ariketa motak:</b> aukera anitzeko galderak, egoerak identifikatu / loturak egin, taulak osatu, erantzun laburreko galderak, hutsuneak bete, egia/gezurra...</p>	<p>▶ 50 min.</p> <p>▶ Gutxienez hiru testu / hiru ariketa.</p> <p>Testuen luzera guztira: 1.500 hitz gehienez.</p> <p>Gutxienez 25 item, hiru ariketatatan banatuta.</p> <p><b>Ariketa motak:</b> aukera anitzeko galderak, loturak egin (ideia/izenburu/ paragrafoak lotu), hutsuneak bete, testua ordenatu, egia/gezurra eta abar.</p>	<p>▶ 75 min.</p> <p>▶ Bi ariketa, gai eta diskurtso-tipologia desberdinetakoak.</p> <p><b>1. ariketa:</b> gutxienez 125 hitz. Zerbaiten berri eman, eskaera egin, argibideak/informazioa eman edo helarazteko mezu elektroniko, gutun, ohar, postal, iragarki, bilera dei...</p> <p><b>2. ariketa:</b> gutxienez 125 hitz. Interesak, erreakzioak, gertaerak, iritzia, informazioa eman/eskatu/egiaztatze eskutitz formal/informal, artikulua labur eta erraz, kontakizun labur, deskribapen...</p>	<p>▶ 30 min. (10 min. gaia prestatzeko dira)</p> <p>▶ Bi azterketari arituko dira.</p> <p><b>0. Aurkezpena:</b> (Ez da ebaluatuko). Azterketariak labur-labur euren burua aurkeztu.</p> <p><b>1. ariketa:</b> (Bakarriketa). 3 min. Gai bati buruzko iritzia azaldu. Aldez aurretik prestatuko dute, bakoitzak bere aldetik.</p> <p><b>2. ariketa:</b> (Bat-bateko elkarrizketa). 6 min. Argazki bidez, gai bati buruzko hainbat aukera/egoera. Akordio batera iritsi behar diren egoera bat aurkeztuko zaie. Helburua: argumentatu, negoziatu, iritzia trukatu.</p>
3HE (C1)	<p>▶ 40-45 min.</p> <p>▶ Gutxienez hiru entzungai / hiru ariketa.</p> <p>Entzungaien iraupena guztira, 12-15 min.</p> <p>Entzungai bakoitza bi aldiz entzungo da.</p> <p>Gutxienez 25 item, hiru ariketatatan banatuta.</p> <p><b>Ariketa motak:</b> aukera anitzeko galderak, egoerak identifikatu, taulak osatu, erantzun laburreko galderak, hutsuneak bete, egia/gezurra eta abar.</p>	<p>▶ 50-60 min.</p> <p>▶ Gutxienez hiru testu / hiru ariketa.</p> <p>Testuen luzera guztira: 1.500-1.700 hitz gehienez.</p> <p>Gutxienez 25 item, hiru ariketatatan banatuta.</p> <p><b>Ariketa motak:</b> aukera anitzeko galderak, loturak egin (ideia/izenburu/ paragrafoak lotu), hutsuneak bete, testua ordenatu, egia/gezurra eta abar.</p>	<p>▶ 90 min.</p> <p>▶ Bi ariketa. Erregistro formaleko idatziak. Helburu profesional, akademiko edo sozialekoak. Gai espezifikoak izan gabe, baina bai konplexuak.</p> <p><b>1. ariketa:</b> gutxienez 180 hitz. Kexatzeko, eskaria egiteko, argibideak/informazioa emateko, iradokizunak egiteko... eskutitz formala.</p> <p><b>2. ariketa:</b> gutxienez 180 hitz. Azalpenak eman, iritzia eman eta argudiatu, konbentzitu, iruzkinak egin, lekuak/pertsonak/gauzak zehaztasunez deskribatzeko... iritzi artikulua/txosten/ iruzkina.</p>	<p>▶ 35-40 min. (15 min. gaia prestatzeko dira)</p> <p>▶ Bi azterketari arituko dira.</p> <p><b>0. Aurkezpena:</b> (Ez da ebaluatuko). Azterketariak labur-labur euren burua aurkeztu.</p> <p><b>1. ariketa:</b> (Bakarriketa). Azalpena, iritzia). 4 min. Aldez aurretik prestatutako gai baten azalpena egin.</p> <p><b>2. ariketa:</b> (Elkarreraginean). 10 min. Gai bera bi azterketariarentzat. Ikuspuntu kontrajarriak, bakoitzak berea defendatzeko. Hasteko, bakoitzak bere ikuspuntua azalduko du, labur. Ondoren, elkarrizketan edota eztabaidan arituko dira.</p>
4HE (C2)	<p>▶ 40-45 min.</p> <p>▶ Gutxienez hiru entzungai / hiru ariketa.</p> <p>Entzungaien iraupena guztira, 12-15 min.</p> <p>Entzungai bakoitza bi aldiz entzungo da.</p> <p>Gutxienez 25 item, hiru ariketatatan banatuta.</p> <p><b>Ariketa motak:</b> aukera anitzeko galderak, egoerak identifikatu/ loturak egin, taulak osatu, erantzun laburreko galderak, hutsuneak bete, egia/gezurra eta abar.</p>	<p>▶ 60-70 min.</p> <p>▶ Gutxienez hiru testu / hiru ariketa.</p> <p>Testuen luzera guztira: 1.600-1.800 hitz gehienez.</p> <p>Gutxienez 25 item, hiru ariketatatan banatuta.</p> <p><b>Ariketa motak:</b> aukera anitzeko galderak, loturak egin (ideia/izenburu/ paragrafoak lotu), hutsuneak bete (cloze testa, esaldiak txertatu...), testua ordenatu, egia/gezurra eta abar.</p>	<p>▶ 120 min.</p> <p>▶ Luzera ertaineko testu bi idatzi (osotara gutxienez 500 hitz). Erregistro formaleko idatziak. Helburu profesional, akademiko edo sozialekoak. Eta gai aldetik aski espezifikoak eta konplexuak izango dira.</p> <p><b>1. ariketa:</b> Jarraibideak, azalpenak, iritziak edo argudioak dituen eskutitz formala.</p> <p><b>2. ariketa:</b> Iritzi-argudiozko testu bat idatzi. Gaia aukeran emango da.</p>	<p>▶ 35-40 min. (15 min. gaia prestatzeko dira)</p> <p>▶ Bi azterketari arituko dira. Lehenengo ariketa egiteko, aldez aurretik gai bana prestatuko dute, bakoitzak bere aldetik.</p> <p><b>0. Aurkezpena:</b> (Ez da ebaluatuko). Azterketariak labur-labur euren burua aurkeztu.</p> <p><b>1. ariketa:</b> (Gaia azaldu, iritzia eman). 4 min. Aldez aurretik prestatutako gaiari buruzko argudio-testua eratu, txandaka.</p> <p><b>2. ariketa:</b> (Elkarreraginean). 10 min. Gai bera bi azterketariarentzat. Ikuspuntu kontrajarriak, bakoitzak berea defendatzeko. Hasteko, bakoitzak bere ikuspuntua azalduko du, labur. Ondoren, elkarrizketa edota eztabaida.</p>

**Ebaluaketa Arloa**  
**Euskalduntze Zerbitzua. IVAP**



# Ezin dut

–Zigarro bat?  
–Unetxo bat, honekin amaitu behar dut.

Amaiak kristalezko ate txuri urdina zeharkatu duenerako, Ainhoak piztua du bere zigarroa, eta eskuan lankidearena. Jertsearen lepoa ongi igo du kokotseraino.

–Ze hotza...  
–Bai, neska!  
–Eta, astebururako ze asmo?

Ainhoak betiko galdera egin duela otu zaio Amaiari, eta ez jakin-minik duelako, bere plan beti ezinhobeak kontatzeko gogoia, baizik. Oraindik asteburua urrun dagoela bota dio haren aurpegi granoz beteari, zigarroari azken zurrupada luzea egin eta hautsontzi hankadunean ongi itzali ostean atea zeharkatu du bat-batean neguko izotzetik udako sargorira salto eginaz.

–Ezin dut jasan. Badakizu.

Paper piloia mila zatitan apurtu eta birziklatzeko ontzira bota ondoren komunerako bidean desagertu da Amaia.

Ainhoak Mikeli begira burua alde batera eta bestera astindu du.

–Jesus! Ahaztu egin zait erdarazko zuzentzailea kentzea, eta tilde batzuk jarri dizkit. Ustez goitik behera begiratu dut, eta akats guztiak kendu, baina *i* batzuen tildeak pasa egin zaizkit. Ongi zegoelakoan inprimatu dut, baina...

–Horrela zainduko dugu natura! Zenbat kopia bota ditu zaka-urretara?

–Gainera hori guretzat zen, ez da publikatzeko ezer –pausu hotsak agertzearekin batera esaldiaren tonuak goitik behera egin du.

–Inprimatu aurretik, hurrengoan zuzendu eta ez dugu pape-rik alferrik galduko. Eta *h*-ren bat falta da. Eta *hitz* egin bana-tuta idazten da!

–Xuxen, lasaiago hartu beharko zenuke. Begi zuloak daukazu, maitea!

–Berdin zait, Mikel. Ezin dut jasan. Badakizu. Ezin dut.

Mikelek barre egin du. Atsegin du Amaia. Bere haserreak, bere aurpegia, begiratu zorrotza betaurreko pastadunen azpi-tik. Takoien dantza, bidean uzten duen koko usaina. Eta nes-kak ere noizbait begiratu lizunen bat egin diolakoan dago.

–Kafe bat, Amaia?  
–Eh... ez, eskerrik asko.

Badu halako iluntasun, eternotasun bat astearteak, astearen hasieran zaudela gogorarazten dizun neke, pisu bat. Astele-hena, oraindik, asteburuaren ondorena izan ohi da, trantsizio moduko bat; oraindik jaiegunak buruan, eta ohartu barik, esnatzerako eguna pasata! Baina astearteak luzeak dira, ordulariari kosta egiten zaio pausoa ematea, Txindokin gora ezinean doan mendizale baten moduan. Horretan pentsatzen ari zen Ainhoa atearen txuri urdinean kolore gorria, metala-



ren distira, bota beltz astunak ikusi dituenean. Ertzainak serio sartu dira, baina bare, aurpegi berarekin ematen baitute hauek isun baten edo heriotza baten berri. Amaiaz galdetu dute eta honen aurpegia zuritik zurira eta hemendik gorrira igaro da zurbilik zurbilenean geratzeko.

Ordenagailuetako tekla soinua bat-batean isildu da, eta doze-naka begik jarraitu dute ertzainek eta Amaiak pasilloan zehar egindako bidea. Mikelek mugimenduak, susto aurpegiak, azalpenak, eskuak gora eta behera, ertzainak lasaitzeko keinua egiten eta Amaia eskuburdinei lotuta ikusi ditu. Ikusten ari dena ezin irentsirik egon arren, ez du kuxkuxeroa izan nahi, eta, beraz, fotokopiagailura hurbildu da, eta kopiarik atera barik zerbait entzutea lortuko ote duen esperoan geratu da.

Polizia eta Amaia desagertu eta berehala inguratu da Ainhoa eta fotokopiagailuan pausatu du eskua. Aparailuak txistu egin du eta argi berdeak piztu dira.

–Bere senarra, bere senarra akabatuta aurkitu omen dute! Eta ez dakit, ez dakit, atxilotuta eraman dute...

Bat-batean aulki hotsek, takoiek eta hasperen eta galderek, oihuek, harridurek, gain hartu diete Ainhoaren hitzei.

–Ezin da izan. Baina nola, Jokin hilda?  
–Eta nola?  
–Eta Amaia zergatik eraman dute?  
–Bai, zera!

Zurrumbilotik ihes egitea lortu du Mikelek, halako batean. Aurpegia ur hotzez busti eta ez dagoela ametsetan ohartu da. Urrunean oraindik zurrumurruek entzuten ditu. Sarri pentsatu izan du, txantxetan, “desagertuko balitz!” Jokinengatik, hau eguerditan auto garbitu berrian Beatles entzunaz Amaia-ren bila etortzen zenean.

Amaiaren mahaira inguratu da. Hortxe Jokin irribarretsua argazkia. Korreoa itxi ere egin gabe joan da. Eta Hotmailean, senarraren azken mezua, atzokoa:

“Maite zaitut”.

**Jone Gorostarzu**  
Idazle Eskolako ikaslea

# Elikagaien salmenta zuzena indartzen ari da

**Nekazaritza eta abeltzaintzako produktuak merkaturatzeko hainbat bide daude. Ekoizle eta kontsumitzailearen arteko harremana era ezberdinean gauzatzen da batzuetan eta besteetan. Oro har, tokian tokiko merkatu edo zirkuitu laburrak elikadura burujabe bat sustatzen du. Aldiz, merkataritzako zirkuitu luzeak, bertakoak ez diren interes ekonomikoen menpeko ohi dira. Historikoki, merkaturatzeko zirkuitu luzeetara jotzeko joera izan den arren, azken hamarkadetan nekazaritza eta abeltzaintzako produktuak merkaturatzeko zirkuitu motzak berreskuratzen jo da, eta espezializazio zabaltzen ari da.**

Salmenta zuzena da ekoizlearen eta kontsumitzailearen artean elikagaia merkaturatzeko sistema motzena, zirkuitu laburra. Zuzenean salduz lortzen dute bi aldeek etekin handiena. Orduantxe da bi aldeen arteko komunikazioa ere estuena. Ohi denez, azoka, merkatu, etxe edota ekoizpena egiten deneko lekuan gertatzen da salmenta. Zirkuitu motzen artean dira, bestalde, kontsumitzaile elkarteak –erosketa bateratu bat egin nahi duten pertsonak biltzen dituztenak– eta tokiko merkataritza bideratzen duten dendak ere; kasu honetan, ekoizleek kontsumitzaileei ez baina dendari saltzen dizkiete produktuak.

Zirkuitu motzak gabe, tamaina erdikoak dira, gaur egun, gehienbat baliatzen ditugunak: supermerkatu, hipermerkatu, jatetxe, eskola eta enpresa jangelak, ospitale eta gainerakoak elikagaiz hornitzen dituzten banatzaileak dira sistema horren eragile nagusiak. Establezimenduok ez ei dute harreman zuzenik ekoizlearekin, eta bitartekari bidez erosten dituzte produktuak. Ekoizleek produktuak ontziratzen dituzte, behar baldin bada, eta banaketaz arduratuko den elkarte osatzen dute. Ekoizpen kopuru zehatzak, hornidura erregularrak eta produktuaren aurkezpena eskatzen dituzte elkarteok, hornidura gauzatzeko data eta leku jakinekin batera.

Zirkuitu luzeetan (elikagaien esportazio-inportazioan jarduten duten sistemetan), aldiz, salgai kopuru handiak eta oso homogeneoak ageri dira batik bat. Hornidurak oso erregularrak dira nahitaez, eta ekoizleak produktua biltegian metatzeko ahalmena izan behar du. Erosketa guneak harremanetan jarri ohi dira banaketa plataformekin, hauek produktuak jaso eta salmenta-guneetaraino garraia ditzaten aurrez ezarritako baldintzetan.

## Jatorrizko eta helmugako salneurriak

Ekoizlearen eta kontsumitzailearen artean bitartekari asko egoteak ez dio ez batari ez besteari onurarik ekarri ohi. Has-teko, produktua garestitu egiten dio kontsumitzaileari eta ekoizleari, berriz, salneurria txikitzen. Egund, jatorrizko eta

helmugako salneurrien arteko ezberdintasuna oso da handia eta, are, hazten segitzen du; produktuen salneurria merkatuan igo arren, nekazariak hutsaren hurrena jasotzen jarraitzen dute, kontsumitzaileek ordaintzen dutena baino askoz txikiagoa da betiere, katean zehar dauden handizkarien kopuru gero eta handiagoarengatik. Egin izan diren zenbait ikerketaren arabera, nekazaritza produktuaren 4,5 bider egiten du salneurriak helmugan, eta merkataritza kateko eragileen gehiegikeriek eragiten dute inflazioa, ez nekazariak eta ez abeltzainak.

Espainiar estatuko Nekazari eta Abeltzainen Elkartearen Koordinakundearen (COAG) iritziz, beharrezkoa da nekazariak salneurri zuzena jasotzea eta, aldi berean, kontsumitzaileek neurriko salneurria ordaintzea kalitatezko elikagai osasuntsuen truke. Halaber, beharrezkoa da merkatuak arautzeko neurriak hartzea, enpresa handiek baliatzen duten *dumpinga* kontrolatzeko; hau da, munduko merkatuetan nekazaritza produktuak ekoizpen kosteen azpitik saltzea galarazteko. Horrek, azken finean, tokian tokiko merkatuak desagerrarazi ohi ditu.

Premiazkoa ere bada hiri handietako auzoetan zein herrietan tokian tokiko merkatuak indarberritzea. Horrek, bestalde, merkataritza-gune handiak zabaltzea mugatzea dakar. COAGek egindako proposamenetan beste bat da etiketatze bikoitza ezartzea; alegia, kontsumitzailearentzako salmenta-prezioarekin batera nekazari edo abeltzainari ordaindutakoa ere erakustea.

## Talde autonomoak alternatiba

Gero eta eskualde eta herrialde gehiagotan, eta kontinente guztietan ere, nekazari eta kontsumitzaile talde autonomoak sortzen ari dira elikagaien ekoizpenaren eta kontsumoaren inguruan. Konfiantzan, konpromisoan eta harreman zuzenean oinarritzen dira beraien arteko kontratuak. Bestalde, osasun, nutrizio eta organolepsia (elikagai baten ezaugarriak: gustua, testura, usaina...) aldetik, kalitate handiko elikagaiak

**“Salmenta zuzenaren bidez lortzen dute bai ekoizleak eta bai kontsumitzaileak etekin handiena”**

banatzea eta kontsumitzea dute helburu, esan nahi baita, osagai kimikorik gabe eta era iraunkorrean ekoiztuak.

Euskal Herrian ere badira ekoizpen eta kontsumo talde autonomoak. Hor dira, besteak beste, Bioalai Araban, Bizigai eta Sumendi Bizkaian, eta Otarra Donostian. Era berean, EHNE sindikatuek ere produktu osasuntsu eta sasoikoak kontsumitzailerari helarazten lan egiten du Nekasare proiektuaren bidez, Nerbioi (Ugao, Laudio, Urduña), Lurgozo (Urdaibai) eta gainerako elkarteen bitartez. Ipar Euskal Herrian, berriz, funtsezko lana egiten ari da Idoki marka.



---

**Jose Antonio Lekue, nekazaria**

---

## “Herrialde bakoitzak elikatzeko duen eskubidea defendatu nahi dugu”

JOSE ANTONIO LEKUE (Larrabetzu, 1953) nekazari ari da 2001etik hona. Barazkiak eta frutak lantzen ditu –sagarra, oroz gain–, eta ekoizpen ekologikoari guztiz emana dihardu. Salmenta zuzenaren bitartez merkaturatzen ditu bere produktuak. Gaia-  
ren inguruko hainbat alderdi darabiltza elkarrizketan, nahiz eta baden alde guztiak bere baitan biltzen dituen azken asmo bat: elikadurarako burujabetza.

### **Nola abiatu zineten zuzeneko salmentan? Zergatik hobetsi zenuten bide hau beste batzuen artean?**

Gure artean, baserritar eta kontsumitzaile batzuen artean, aspaldi hasi ginen eztabaidatzen gaia. Gaur egungo merkatu honetan baserritar txikiek ez dute zereginik, eta bestalde, kontsumitzaileek ere ezin dituzte kalitatezko eta inguruko produktuak erraz eskuratu. Horregatik hasi ginen. Lehendik ere baserritar batzuek herrietako merkatuetan eta otzaren bidez zuzeneko salmenta egin izan dute. Ez da ahaztu behar etxex etxeko salmenta, dela esnearena, dela gaztarena... geuk ere ezagutu dugula, eta oraindik ere, traba guztien gainetik baserritar batzuek horretan jarraitzen dutela. Baina, zera azpimarratu behar da: momentu honetan ia-ia mugimendu sozial bat sortu da, tokian-tokian esperientzia ezberdinekin, eta guzti honen iturburu Vía Campesina da, “Elikadurarako burujabetza” delako planteamendua gogoan hartuta. Bizkaian dagoeneko 300-400 otzara banatzen dira astero Nekasareren bidez. Bizkaiko EHNE izan da horren bultzatzailea. Iparaldean, esaterako, Idoki marka lehenagotik dabil gai hori eta beste batzuk lantzen.

### **Zertan da otzaren banaketa gaur egun?**

Oro har, funtzionamenduari dagokionez, otzaren banaketa hone-la egiten da: hamar, hamabost, hoge... parte hartzaileko kontsumitzaile talde bat osatzen da herri edo auzo baten. Talde horrek lokal bat bilatzen du, izan daiteke denda bat, libre dagoen lonja txiki bat, gaztetxe bat... eta baserritarrak astero uzten ditu erabakitako honenbeste otzara toki horretan. Baserritar bakoitzak berak ekoizten dituen produktuak eta beste baserritar batzuek ekoizten dutena entregatzen du. Adibidez, barazkiak ekoizten dituenak beste batzuen ogia, arrautzak, okela, txorizoa, gazta,

oilaskoa eta abar ere ematen ditu. Hau apurka-apurka antolatzen gabiltza... Baserritarrak astero otzarak entregatzeko hartu duen konpromiso berberarekin kontsumitzailea ere konprometitzen da, urtebetez, otzara hartzera; horrela, urte horretako ekoizpena planifikatzea errazago gertatzen zaio baserritarrari.

### **Planifikazioaz gain, zein onura jasotzen ditu baserritarrak salmenta zuzenaren bidez?**

Elikadurarako burujabetza zabalduz doan heinean, egungo merkatutik at dauden harremanak sortzen dira. Esate baterako, Euskal Herrian dagoen nekazaritza-ustiapen eredu sendotzen laguntzen du, toki-ekonomia bultzatzen da, landare eta animalien tokian tokiko aniztasuna ziurtatzen laguntzen du... Azken finean, munduko herrialde askotan dagoen gosea gainditzeko asmotan, herrialde bakoitzak elikatzeko duen eskubidea defendatu nahi dugu.

### **Zer irizten diozue saltoki handietako salmentari?**

Merkataritza-gune eta saltoki handietako eredu, gehienbat, transnazionalak kontrolatzen dute, agro-industriatik hornitzen dira, eta munduan dagoen gose egoera gainditzeko ez dira gauza; elikagaiak milaka kilometro egiten dituzte kontsumitzaileengana heldu orduko eta, tarte horretan, energia asko kontsumitzen da. Irabaziak elikagaiak ekoizten dituztenengana joan beharrean, bitarteko joan-etorrietan, bitartekarien eta gainerakoen eskuetan geratzen dira. Kalitatea ere enpresa handien interes arabera dago araututa...

**“Gaur egun baserritar txikiek ez dute zereginik, eta kontsumitzaileek ere ezin dituzte kalitatezko eta inguruko produktuak erraz eskuratu”**

---

**Jon Arizkun**  
Kazetaria

# Hirukote perfektua

Izen berri bat kontu zahar bati ekiteko: *boreout*. Langileen motibazio falta, ilusio falta... gaixotzeraino. Egin dezakegun baino lan gutxiago ematen digutenean eta gure gaitasunen azpitik aritzean sortzen omen da patologia hori. Ondorioa: langile bezala segurtasuna eta konfiantza galtzea, eta pertsona moduan ere, norberaren burua zalantzan jartzea.

Aurrera jarraitu orduko, beste hitz potolo bat pertsona askok lanean bizi dutenari izena jartzeko. Hori ere emozionalki sufritzen den prozesu bat da eta, nola ez, osasun fisiko eta psikologikoan islatzen da: buruko min eta takikardietatik hasi, depresio eta antsietatera heldu arte: *burnout*.

Fenomeno biek eragin sakona dute lagun arteko giroan eta familiako harremanetan, eta horiek gaiztotuz doazen heinean, bakardadera hel gaitezke.

Bietan ematen da espektatiben frustrazioa, eta hori lanarekiko idealizatuta geneukana betetzen ez denean sortzen da. *Boreout*-ean, lan eduki faltagatik eta eskaini genezakeena baino askoz gutxiago ematera behartuta gaudelako; eta *burnout*-ean, aldiz, lan larregi izateagatik eta eguneko ordu guztiak lan eginda ere, ahalegin horiek inoiz ez direlako nahikoak besteak asebetetzeko.

Mutur bietatik puntu berdineren hurbiltzen gara beraz, zirkulua itxiz: pertsonaren frustraziora eta motibazio falta larrira bere autoestimua sakon kaltetzeraino.

Eta hirukote perfektua osatzeko, hirugarren kontzeptu bat mahai gainean: *barne iraipena* edo *kanporatzea*. Zer esan nahi duen horrek? Aurreko bien ondorioa izan daiteke. Egunak joan eta egunak etorri desmotibazio eta frustrazio horri nola aurre egin ez dakigunean, etsitzean, errenditzean datza. Barne kontentzimendu batera heltzen gara: ez dago egoera aldatzerik, alferrikakoa da borrokatzea, saiatzea. Iraultza isil bat egiten dugu orduan "barruranzko ihes" horretan, errendimendua jaitsez eta lana gutxituz eskatutako minimora arte, ahalik eta ikusezinen bihurtu arte.

Zer egin egoera horren aurrean? Erantzuna erraza da. Gauzatea kostatu egiten zaigu, ordea. *Nahi duguna*. Horixe da erantzuna eta honetara heltzeko pausuz pausu joango gara.

Ezer baino lehen, *nahi EZ duguna* identifikatuko dugu. Zer ez dugu nahi? Fisikoki eta psikologikoki gaixo sentitu, gure balioa zalantzan jarri, bakarrik sentitu, besteekiko harremanak galdu.

Lehen hurbilketa batean pentsa dezakegu gure egoeraren erantzulea eta erruduna gure nagusia edo erakundea bera dela. Beraz, guk ez dugu besterik, tokatu zaigun zorte txarra bizitzea baino.

Eta kito? Zaila egiten zait hori onartzea. Sinesmen hori barneratuta izatea, hazkunde eta garapen prozesuari mugak jartzea da. Guk jartzen ditugu mugak. Guk ken ditzakegu.

Entzun zer dioen zure buruak, zure gorputzak, zure bihotzak... eta erantzun orain:

–Nola sentitzen zara?

–Zer da nahi duzuna?

–Lor zenezake zure lan horretan?

–Zer aldatu behar da zure lanean?

–Aldatu behar den horretatik, zer dago zure esku? Eta zer ez?

–Zeintzuk pausu emango dituzu zure esku dagoena lortze aldera?

–Zerbaiti uko egin beharko diozu hori lortzeko?

Merezi al du?

–Noiz egingo duzu?



Lehen pausua *identifikatzea* da. Norberaren burua ezagutzeko, luzaroan gaixotuta edo emozionalki minduta sentitzen garen ikusi eta jakin. Triste, agresibo edo beldurrez jokatzeko dugun. Beraz, zerbait gaizki doala identifikatu.

Bigarren klabea *onartzea* da. Onartu ez ditugula nahiko genituzkeen lan aukerak, onartu gure enpresak bere mugak dituela, gure nagusiak ez duela nahiko genukeen zuzendaritza estiloa, lankideekin daukagun harremana ez dela aukeratutakoa, kudeatu gabeko gatazkak daukagula lanean...

Eta gero? Egoera *bideratu*. Aurrekoa onartuta ere, hobetzeko aukerarik balego, modu egokian eta pertsona egokiari aurkeztu. Esploratu bideak eta proposamenak egin. Eta funtzionatzen ez badu?

*Erabaki*. Bai, gure esku dago erabakia. Egoerarik larrienean ere, beti dago aukeratarik: esan ala ez esan, egin ala ez egin, jarraitu ala aldatu... Gogoratu! Ez jarri zure indarra besteen izaera eta jokaera aldatzeko ahaleginetan. Identifikatu zure eraginpean dauden erabakiak eta eman pausua nahi duzun hori lortze aldera. Horrekin, zu zara zure bizitzaren erantzule, ez eman beste inori botere hori.

Eta azkenik, ez ahaztu: hau prozesua da, *porrota ez da existitzen*. Dena da esperientzia, ikasteko aukera berria, gogorra baldin bada ere. Bizitza osoa daukazu behin eta berriro saiatzeko nahi duzun hori lortu arte. Zure zoriontasunaz ari gara. Edo beste zeregin garrantzitsuagoren bat daukazu? Erantzuna beti dago norberaren baitan. Bila ezazu.

**Aurkene Redondo**  
Enbor Consultores

# IREKIA: Gobernu ireki baterantz

**B**arack Obamak karguaren zina egin zuenean, Etxe Zuriko<sup>1</sup> web-orriaren estiloa aldatu egin zuten; hain zuzen ere, *gobernu irekia* izango zela agindu zutez, hitza betetzeko eta ezaugarriok eransteko: Administrazioaren gardentasuna, herritarren parte hartzea eta lankidetzak. Lehenengo aldiz, blog ofizial bat sortu eta gune birtualak ere abiarazi zituzten, herritarrek nahi zuten informazioa eskuratu eta lehenekaritza taldearekin zuzenean harremanetan jartzeko, dela legeak onartu aurretik kontsultatu, lege-ekimenak proposatu, edo informazio ofiziala eskueran izateko (gainera, informazio horrek guztiak ez du copyright-ik izango, eta Creative Commons lizentziaren bidez berriz ere erabili ahal izango da). Azkenik, Gobernuaren opakatasunarekin amaitzeko, *Freedom of the Information Act* deiturikoa (hau da, herritarrei informazio publikoa eskueran izatea ahalbidetzen dien legea) ahalik eta modu zabalenean aplikatzeko agindu zuen. Obamaren politika berriak oinarrian duen printzipioa honako hau da: “zalantza dagoenean, irekitasuna nagusi”. Eta hori dela eta, munduan *2.0 gobernu*a dei daitekeen lehena abiarazteko aitortu diote (VARELA, 2009).

garatuz”. Irekiaren helburuetako bat herritarren eta Administrazioaren artean bitartekorik ez egotea da, horrela, Gobernuaren jarduna gardenagoa izango baita (EUSKADINNOVA, 2010).



Irekiak proposatzen duen hobekuntzetako bat gardentasuna eta herritarren parte hartzea Gobernuaren eguneroko lanean txertatzea da. Oraingoz, legegintzaldi honetako legegintza egutegia argitaratu da, eta epealdi bererako aurreikusitako *plan eta jardura nabarmenenen berri* argitaratuko dela jakinarazi da. Irekiaren berri emateko bide-

oak konpromiso argia erakusten du: “Proposamen, asmo, lege, neurri eta planen berri, horiek onartu aurretik izango dute herritarrek”. Esandakoaz gainera, “herritarrek aukera izango dute horiek guztiak lantzeko prozesuan parte hartzeko”. Baina herritarrek prozesu politikoan parte hartu ahal izateko beharrezkoa den borondate politikoaz gainera (printzipioz, badirudi borondate hori badagoela), parte hartze hori kudeatzeko ereduak garatu behar dira, eta kudeatzea aurrera eramateko baliabideak jarri; eta horrek politikaren eta antolakuntzaren eraldaketa handia eskatzen du (ORTIZ, 2010).

Irekiaren bidez, herritarrei Gobernuaren ekintzak kontrolatu, horietan parte hartu eta erabakitzeak aukera ere eskaini nahi zaie, hain zuzen ere pertsona orok bere burua Gobernuaren eta haren erabakien zati gisa senti dezan. Azken helburua demokraziaren abiaburuko ideia errealitate bihurtzea da: denon artean gobernatu. Horrela jarduteak kultura-aldaketa handia dakar, rola aldatu egiten direlako eta herritarrek agente pasibo izateari uzten diotelako. Eta besterik gabe, mezu hartzailerak izateko, agente aktibo izatera pasatuko dira, eragiten dieten edo herritarrontzat garrantzia duten erabakietan parte hartuz, modu eraginkor, erraz eta etengabekoan.

Irekiak proiektuak Barack Obamaren gobernu Irekiak dituen hiru oinarri berak ditu:



Iturria: <http://www.whitehouse.gov/Open>

Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeak izan eta bederatzi hilabetera, 2010eko urtarrilaren 25ean, Eusko Jaurlaritzaren Irekia<sup>2</sup> izeneko plataforma aurkeztu zen, hain zuzen ere *gobernu irekiaren*<sup>3</sup> Espainiako lehenengo esperientzia. Plataforma software librearekin eta Creative Commons<sup>4</sup> lizentziarekin eginda dago, eta parte hartzea du xede. Patxi Lopez lehendakariak, Irekiaren berri emateko ekitaldian, honela definitu zuen ataria: “Administrazio gardenago eta parte hartzaileagoa bultzatuko duen tresna izan nahi du, herritarren eta Gobernuaren arteko lankidetzak

**1. Gardentasuna.** Gobernuak egiten ari denari, dituen planei eta asmoei buruzko informazioa izan ahal jarriko du herritarren esku.

**2. Partaidetza.** Gobernuak onartu nahi dituen legeak, dekretuak eta dena delako neurri eta erabakiak eztabaidatu, baloratu, kritikatu eta osatzeko modua izango dute herritarrek (horiek idatzi baino lehen ere bai), beren iritzien bidez. Ekarpen horiek Gobernuak sustatutako neurriei buruzkoak izango dira, baina herritarrek proposamenak egiteko aukera ere izango dute, eta prozesuaren parte diren alde guztiek horiei buruz eztabaidatu eta gaia aztertzeak aukera izango dute.

**3. Elkarlana.** Eusko Jaurlaritzak herritarrekin, enpresekin, gobernu kanpoko erakundeekin eta gainontzeko euskal administrazioekin lankidetzan aritu nahi du, horiei guztiei tresna berritzaileak eta elkarlan bidezko lanmetodoak eskueran jarritz.

<sup>1</sup> <http://www.whitehouse.gov/>

<sup>2</sup> <http://www.Ireki.euskadi.net/>

<sup>3</sup> [http://es.wikipedia.org/wiki/Gobierno\\_abierto](http://es.wikipedia.org/wiki/Gobierno_abierto)

<sup>4</sup> <http://creativecommons.org/>

Filosofia hori errealitate bihurtzeko, Gobernu Irekiaren eta Interneteko Komunikazioaren Zuzendaritzak (Lehendakariaren baitan dago) Irekia izeneko web-orria sortu du, eta gutxikagutxika Eusko Jaurlaritzaren<sup>5</sup> atariaren barruan sartzen joango da.



Iturria: Irekia, 2010eko otsailaren 6a

Irekia ataria bi gune bereizik osatzen dute: bata, herritar guztiarentzat diseinatuta dago, eta bestea, zehatzagoa, hedabideetako profesionalentzat eta kazetari blogarientzat da, eta Multimedia Agentzia du izena.

Irekiaren barruan, Gobernuak herritarrei aurrera eraman nahi dituen ekimen politikoen berri emateko leku bat egokitu da. Elkarrekin lanean deritzo, eta parte hartzeko bi gune ditu. Gure proposamenak izenekoak aukera ematen die herritarrei, iruzkinak egiteaz gainera, Eusko Jaurlaritzako sailek herritarren iritzia jakiteko jarritako lege, dekretu, neurri eta ekimenei buruzko ekarpen zehatzak egiteko. Gune horren alboan, Zure proposamenak izeneko atala dago, eta hor, Gobernuaren proiektuak alde batera utzirik, herritarrek beren berezko proposamenak egiteko aukera izango dute, interesgarriak iruditzen zaizkien gaiak mintzagai harturik.

Herritarrek parte hartzeko gune hau guztia Berritzaileen Euskal Komunitatearen<sup>6</sup> sare sozialean dago kokaturik, eta sare horrek jartzen du beharrezko tresneria guztia herritarren parte hartzea ahalik eta seguruen, fidagarriena, errazena eta arina izan dadin; betiere, herritarrek eta Gobernuak ideia eta proiektuei buruz eztabaidatzeko modua izan dezaten.

Era bateko zein besteko ekarpenak kasuan kasuko sailek aztertuko dituzte, eta balorazioa egin eta gero, eman beharreko erantzun egokia zein den erabakiko dute. Gobernuak baliatzeko modukoak diren ideiak bere legeak, neurriak eta dekretuak pres-tatu, diseinatu eta idazten dituzten lan-taldean esku geratuko dira, material gisa erabil ditzaten. Helburua, azken batean, herritarren ekarpen horiek uneren batean Gobernuaren lege, dekretu edo ekimenen zati bihurtzea da.

Sare sozialak<sup>7</sup> (Facebook, Twitter, YouTube, e.a.) gero eta gehiago hedatu dira eta erabili ere gero eta gehiago erabiltzen

dira, eta horietan izango dira, sarrienik, Gobernuaren jarduerari buruzko eztabaidetako batzuk. Sare horietan ere emango da Exekutiboaren jardueraren berri; izan ere, Gobernuak berak sortutako informazioa, edo bultzatu nahi diren neurri edo legeei buruzkoa, nahiz herritarren iritzi eta ekarpenak sare sozialetara birbidaliko dira, jende guztiak ez baitu informazioa IREKIaren bidez soilik jasoko. Sare sozialetan sortuko den eztabaida horren berri ere jasoko du Gobernuak, eta arau eta legeei buruz eztabaidatzeko guneetan jarriko du.

Irekia oso bide indartsua izan daiteke parte hartu ahal izateko, baldin eta herritarrek eta Administrazioako arduradun politiko eta teknikoek eraginkortasunez erabiltzen ikasten badute, hain zuzen ere herritarren parte hartzea erakunde publikoen funtzionamendua hobetzeko aukera bihur dadin, eta ez kudeatzen zaila den beste zama bat. Helburua erakunde publikoen jarduna irtenbide berritzaile eta sormenezkoetara bideratzea da, gizartearen arazo eta beharrezko gero eta konplexuagoak konpontzen laguntzeko.

Azken finean, nahiz eta gaur egun tresna teknologikoak eskura izan, esate baterako Irekia, zeinak erakunde publiko irekiago eta gardenagoak lortu nahi baititu, hori guztia erdiestea ez dago teknologiararen eskuetan, ezpada eze erabaki politiko eta publikoetan zerbait esan beharra duten pertsona guztien eskuetan, guztion erantzukizuna delako: arduradun politikoak, Administrazioako profesionalak eta herritarrak. Tresna teknologiko bati esker, orain arte ezezaguna izan den kultura-aldaketa eragitea lortzen bada, herritarren eta Administrazioaren arteko harremanei dagokienez, izan dadila ongi etorria! Baina espero dezagun tresna bera xede ez bihurtzea, baizik eta bitarteko, erakunde publikoak herritarrengana hurbiltzeko eta herritarrongana hauteskundeak direla-eta lau urtean behin bakarrik ez jotzeko; etengabe egon behar da herritarrekin harremanetan, interesekoak zaizkien gaien inguruan erabakitzeko orduan.

### Erreferentziak:

EUSKADINNOVA (2010): “Eusko Jaurlaritzak Irekia abiarazi du, gardentasuna eta herritarren parte hartzea hobetzeko asmoa duen web-orria”. Non:

[http://www.euskadinnova.net/home.aspx?tabid=215&idNoticia=6279&utm\\_source=boletin&utm\\_medium=email&utm\\_campaign=boletin\\_65](http://www.euskadinnova.net/home.aspx?tabid=215&idNoticia=6279&utm_source=boletin&utm_medium=email&utm_campaign=boletin_65)

IREKIA (2010): “Irekia: Gobernu Irekia”. Non:

<http://www.irekia.euskadi.net/es/pages/798-acerca>

ORTIZ, Iñaki (2010): “IREKIA, un primer paso”. Non:

<http://eadminblog.net/post/2010/02/01/Irekia-un-primer-paso>

VARELA, Juan (2009): “Obama instaura el primer gobierno 2.0 del mundo”. Non:

<http://www.publico.es/internacional/194020/obama/instaura/primer/gobierno/abierto>

<sup>5</sup> <http://www.euskadi.net>

<sup>6</sup> <http://www.comunidadvascainnovadores.net/>

<sup>7</sup> <http://www.irekia.euskadi.net/eu/site/snetworking>



## Patxi Baztarrika: “Inoiz baino neurri handiagoan dago euskararen etorkizuna geure esku”

**Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuorde ohiak azken 25 urteko hizkuntza politikaren analisia eta gaur egungo errealitateari buruzko gogoeta egin du *Babeli gorazarre* (Bizikidetzarako hizkuntza politika zilegi eta eraginkorra) izeneko liburuan (Alberdania). Tesi nagusia, hizkuntzen arteko bizikidetzaren behar-beharrezkoa dugula, hots, Babel *madarikaziotzat* hartu ordez *bedeinkaziotzat* hartu behar dela; bizikidetzaren horretan datzalako, egilearen ustez, hizkuntzen arteko auziari irtenbide bidezkoa eta justua.**

**Liburua, nagusiki, 25 urteko hizkuntza politikaren analisia eta gaur egungo errealitateari buruzko gogoeta da. Mende laurdena asko edo gutxi da hizkuntza bat berreskuratzeko?**

Oro har, denbora gutxi da mende laurdena, hainbat belaunaldiren arteko kontuak baitira hizkuntzen biziberritze prozesuak. Euskarari dagokionez, asko da mende laurdenean egin dena, baina mende laurden askotakoa da egiteko dagoena. Egia da, halaber, egiteko baino denbora gutxiago behar dela desegiteko.

**Egiten duzun txangoan, behin eta berriz ageri da kezka nagusi bat: hizkuntza politikaren premia aldarrikatzen duzu, “hizkuntza darwinismo”tzat salatzen duzunaren aurka. Zergatik babestu behar dira hizkuntzak?**

Hizkuntzak, izan, gauza asko dira; arnasa eta bizia, ordea, hiztunen ezpainetan lekurik duten neurrian bakarrik hartzen dituzte. Horregatik, hiztunak errespetatuko badira, nahitaezkoa da hizkuntzak babestea. Hizkuntza aniztasunaren kudeaketa gizarte demokratikoen osasunaren neurgailu nagusietariko bat da gero eta neurri handiagoan. Hizkuntza darwinismoaren eta dogmatismo linguistikoaren aurrean, demokrazia linguistikoa eraikitzea da hizkuntza babesteko bidea.

**Kezka bera ageri da liburuan zuk beharrezkotzat jotzen duzun hizkuntza politikaz jarduterakoan: zilegi eta eraginkorra adjektiboak lotzen dizkiozu beti. Zein ikuspegitik zilegi eta zertarako eraginkorra?**

Herritarren gogo asebetezuek eta legeria bete eta betearazteak dakar *zilegitasuna*, eta bide hori etengabe urratzeko balio duena da *eraginkorra*. Bikote hori elikagai beharrezkoa du gizarte kohesioak. Bistan da, errepresioarena edo herritarren gogotik mila kilometrotara dabilenarena ez direla hiz-


kuntza politika zilegi eta eraginkorrak; itxuraz askatasunaren paradigma den “laissez-faire, laissez-passer” ere ez da zilegi, bizikidetzaren erabat higitzen duen politika baita hori.

**Orain arte egin den lana gutxiegitzat jotzen dute batzuek, gehiegitzat askok.**

Maximalismoen eta minimalismoen artean, oreka aurkitzean dago koska. Esango nuke euskararen osasuna batzuek aitortzen dutena baino hobea dela, eta askok nahiko luketena baino makalagoa. Atzoko betaurrekoak alboratu eta gaurbiharkoez egin behar zaio aurre egoerari. *Txipa aldatzea* ezinbestekoa dugu, inoiz baino neurri handiagoan baitago euskararen etorkizuna geure esku, ez beste batzuen esku. Euskara erabiltzeko aukerak sortzen jarraitzea bezain garrantzitsua dugu jada ditugun aukerak baliatzea: erabili *ahal* izatetik erabili *nahi* izatera jauzi egin eta, finean, *erabilia izatea* du euskarak hil edo bizikoa.

**Irtenbidea bi hizkuntza komunitateen artean zubiak eraikitzea dela diozu. Integrazioa eta oreka hauspotu eta setakeriak gainditzea. Nondik abiatzen da, zure ustez, horretarako bidea, eta zein dira ibilbide-orriaren mugarri nagusiak?**

Uste dut gure bizikidetzaren defizit larrienetakoa dela gure gizarteko mundu elebakarraren zati handi batek euskararen munduez duen ezagutza falta. Mundu horrek utzi egin behar dio euskal hiztunak existitzen ez diren ente ikusezin batzuk balira bezala hartzeari eta euskal hiztunen era guztietako bizipenei bizkarra erakusteari. Bizikidetzaren exijentzia da hori, ez euskararena. Eta euskal hiztunoi dagokigu euskara eta euskarazko askotariko sorkuntzari prestigioa ematea, euskara aukera zabal, ireki eta aberasgarri moduan aurkeztea, eta ezeri uko egin beharrik gabe eta gogoko ez dituen diskurtso eta jokabideak irentsi beharrik gabe edonork bereganatu dezakeela erakustea.



**Euskararen alde lan handia egin bai, baina euskara nolabait “patrimonializatu” dutenen jarrera salatzen duzu. Zehaztuko zenituzke “patrimonializatzeko” horren nondik norakoak eta zure ustez sortzen dituen kalteak?**

Ertz ugari ditu ditxosozko “instrumentalizatzeak”. “Euskara guztiona da” leloa ia mundu guztiak onartzen du, baina leloaren ondorioak asumitzerakoan dira komeriak. Esaterako, lelo hori bere egiten duenak uko egin behar dio euskararen jabetza eskusiboa dagokiola edo euskararen zaindari izateko inork baino eskubide handiagoa duela uste izateari. Lelo hori bere egiten duenak uko egin behar dio euskara bere errebindikazio eta kontsigna politikoak gizarteratzeko aitzakiazat erabili eta instrumentalizatzeari, uko euskaltzale guztienak izateko bokazioa duten hainbat ekimen bere estrategia politikoa bazkatzeko lapurtzeari. Lelo hori bere egiten duenak elebitasun ahalik eta orekatuenari beldurra galdu eta politika euskaltzaleak bultzatu behar ditu etengabe, eta euskararen erabilera hauspotzeko ekimenei mesfidati eta desafekzioz edo urruntasunez begiratzeari utzi. Euskaltzale ez denari dagokio euskaltzalea, eta euskaltzaleari dagokio ez denari hartarako bidea erraztea. Elkar irabazi behar dugu, bizikidetzak delako jokoan daukaguna, baina beti ondo gogoan edukita euskara dela arreta eta bultzada berariazkoa eta sendoa behar dituen. Pausorik luzeena eta urrats gehiago ematea euskaratik urrun daudenei dagokie, dudarik gabe.

### **Babel bedeinkazioa dela diozu. Zergatik?**

Gizakiak eta gizadiak duten ezaugarri nagusia diferentzia eta partikulartasuna dira. Diferentziak eta partikulartasunak ukatzeak gizakia eta gizadia ukatzea dakar berarekin. Partikulartasun horien batura da gizadia aberasten duena. Partikulartasun horien batura dira aniztasuna eta unibertsaltasuna. Eta horixe da Babel, uniformetasunaren ukazioa eta aniztasunaren aldarria.

### **Hizkuntzaren garapena, gurean, gazteen eta euskaldunberrien eskutik dator nabarmen. Beharbada bizi-tasuna irabazten ari da, baina kalitatea galtzen?**

Hazkunde baten kronika da gurea, eta ez dago kosturik gabeko hazkunderik. Euskara bigarren hizkuntza gisa ikasi duten 300.000 euskaldunak etengabe animatu behar ditugu dakiten euskara, dakiten neurrian, lotsarik gabe erabiltzera. Izan ere, horiek beharrezkoak baitira euskara haziko bada eta euskaraz bizi ahal izango badugu. Horrek, ordea, hizkuntza bera ere neurri batean aldarazi egingo du. Baina, ez dezagun ahantzi: kantitaterik gabe ere ez dago kalitaterik hizkuntzan.

### **Eztabaida biziak sortu dira hezkuntza sistemak gure gazteak euskalduntzeko duen gaitasunaz. Bistan da hezkuntza ez dela nahikoa baina, hezkuntza eredu bera birpentsatu beharko litzateke?**

Hezkuntzak ikaragarri egin du eta asko egin dezake euskalduntzearen mesedetan. Batez ere eskolari zor zaio euskal hiztunen hazkunde etengabea; baita, neurri apalagoan baina, euskaltegiei ere. Hiru edo lau eletako hezkuntzarena da etorkizuna, eta hor aurkitu behar du behar besteko tokia euskarak.

### **Uste duzu euskaldunek atxikimendua erakutsi dutela, historikoki, euren hizkuntza propioarekiko?**

Jakina baietz. Azken hogeita hamar urteotakoa du euskarak herri-aginteen babes eta bultzada. Herritarren atxikimenduari eta garaian garaiko premia komunikatiboetara egokitzen asmatu izanari esker iraun du mendez mende euskarak. Mitxelenak zioen bezala, baina, izan da zabarkeria franko ere.

### **Amaitzeko, non ikusten dituzu ahuleziarik nabarmenak? Non, indargunek?**

Ikaragarria da euskarak eman duen jautzia, baina oso erronka konplexuak ditugu. Esango nuke naturaltasuna eta erakargarritasuna direla etorkizunari begira gako nagusiak. Eskolari eta euskaltegiei esker sortu diren elebidun berriek guraso izatean euskara transmitituko al diete beren seme-alabei lehen hizkuntza moduan? Saihestuko al dugu milaka eta milaka elebidunentzat euskara soilik hizkuntza akademiko, hotz eta barne-indar gabea izateko arriskua? Naturaltasuna da jokoan dagoena, eta naturaltasunaren eskutik dator erabilera eroso eta bizia; eta erabilera eroso eta biziaren eskutik, hedapena. Jarrerak ere oso garrantzitsuak izango zaizkigu. Inoiz baino gehiago dago EAEn behinik behin –besterik baitira Nafarroa eta Iparraldeko kasuak– euskararen etorkizuna herritarren eta hiztunen esku.

**Alberto Barandiaran**  
Kazetaria



# San Frantziskoko Basque Club: Bertsoz bertso, egunez egun, 1960tik

**1960** ko ekainean, Fernando Aire “Xalbador” eta Mattin Treku bertsolari entzutetsuak Ameriketako Estatu Batuetara joan ziren, bertsoan aritzera bertako euskal komunitateetan. Kaliforniako La Puente eta Bakersfield-en eta Nevadako Reno aldean ibili ziren orduko hartan. San Frantziskoko Les Jardiniers Français (Frantziako lorezainak) elkarte frantsesak urtero antolatzen duen piknikera ere joan ziren, eta makina bat euskaldunekin bildu ziren bertan. Les Jardiniers taldearen piknika hilaren 19an izan zen Saratoga Springs parkean, eta 2.500 lagun bildu ziren. Itxura denez, 1955. urte inguruan, San Frantziskoko badien bizi ziren euskaldunen bi heren baino gehiago lore zaintzan ibiltzen zen lanean. Festa hartan, bada, Xalbador eta Mattin bertsoan ari zirela, mikrofonoak kale egin zuen bat-batean eta ikuskizuna bertan behera laga zuten; lur jota geratu ziren bertsolariak eta erabat sututa haiek ikustera joandako euskaldunak. Batzuek oraindik ere uste dute sabotajea izan zela inondik ere; beste batzuek arazo tekniko hutsa izan zela diote.

Bata edo bestea izan, laster erantzun zioten horri San Frantziskoko euskal komunitateko gazteek, eta ekainaren bukeran bertan Basque Club of California sortu zuten, (Kaliforniako Euskal Kluba, edo San Frantziskoko Basque Cluba) Claude Berhouet buru zela (Donazarrekoa zen sortzez, eta garai hartan San Frantziskoko Hotel de France hotelaren jabea). Gazte haiek argi zeukaten euskal kulturari eta euskarari babesa eta indarra ematea zela beren helburua. Ehun bat kide bazituen jada elkarteak 1960ko urriaren bueltan.

Hortaz bada, San Frantsizkoko badiako euskal komunitateek bazuten berriro ere elkarte bat denak bilduko zituena, eta suspergarri izango zena ekitaldi eta jarduera kulturalak antolatzen hasteko berriz. Halere, ez dugu ahaztu behar San Frantziskoko Basque Club elkarteak bazituela bide-urra-tzaileak aurretik, Sociedad Vascongada de Beneficencia Mutua eta Zazpiak Bat elkarteak, iraupen labur samarrekok biak ere, 1920ko hamarkadaren hasieran sortutakoak. Bere bideari ekin, eta laster asko antolatu zuen Basque Club elkarteak lehenengo piknika 1961ean, baita mus-txapelketa 1963an eta pilota-txapelketa ere 1968an, urtero-urtero errepikatzeke asmotan. Bi dantza-talde ere sortu zituen (Zazpiak Bat eta Gazteak) 1960an bata eta 1961ean bestea, klika banda bat (Zazpiak Bat), 1964an, bai eta abesbatza ere (Elgarrekin) 1979. urtean. Esan beharrik ez dago Kaliforniako klub bizienetakoa izan zela berehala, Ameriketako mendebalde osokoa izan ez bazen.

XIX. mendean hasi ziren joaten euskaldunak Kalifornia aldera eta XX. mende erdira arte iraun zuen emigrazioak. Ameriketako mendebaldean artzaintzan jarduteko esperantzak liluratuta joan ziren milaka eta milaka euskaldun. Hala bada, San Frantziskon euskaldunak gero eta gehiago ziren heinean, hainbat elkarte sozio-kultural sortu zen badien,

Basque Club elkartearen irudiko. Azkenik, 1982. urtean, lehenengo Euskal Etxea sortu zuten, Basque Cultural Center (Euskal Kulturaren Bilgunea) 1979an sortutako elkartearen ahaleginen ondorioz. Hona hemen garai haietan sortutako elkarteetako batzuk: Menlo Park Zazpiak Bat (Menlo Parkeko Zazpiak Bat; 1964); Basque Educational Organization (Hezkuntzaren Euskal Erakundea; 1984), Marin-Sonoma Basque Association (Marin-Sonoma Euskal Elkarte; 1989) eta Anaitasuna Basque Club (Anaitasuna Euskal Kluba; 1991). Elkarte horiek guztiek lanean dihardute oraindik ere, Menlo Parkekoak izan ezik, 1983an desagertu zen-eta.


Ameriketako Estatu Batuetako azkeneko erroldak (2000) adierazten duenez, beren burua euskalduntzat jotzen duten 57.000 lagun heren bat Kalifornian bizi da, eta horietatik 3.500, zehazki, San Frantziskoko badien. Kalifornia da, hortaz, herrialde osoan euskaldun gehien dauzkan estatua eta, Kaliforniaren barruan, San Frantziskon bizi dira gehienak. Ehun euskaldunetik hamahiru badiako euskal elkarteren batean zebiltzan 2007. urtean. Aurten, San Frantziskoko Basque Club elkarteak mende erdi beteko du eta oraindik ere kidez oso aberatsa da: bazkide gehien daukan elkarte da, Basque Cultural Center elkartearen ondoren.

Urteurren hori ospatzeko, Basque Club elkarteak Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña gonbidatu ditu bertsoetara San Frantziskoko hegoaldeko Basque Cultural Center bilgunea. Ba al da omenaldi hoberik Ameriketako lurretan euskararentzat, Xalbador eta Mattinentzat, San Frantziskoko euskal elkarte-mugimendua uste gabe piztu zuten haien-tzat, gaur egungo bertsolari bikainetatik biren bertso-saioa baino? Oraingoan bertsolariak ez dira bakarrik egongo, Ameriketako Estatu Batuetan bertsoan ibiltzen diren beste lau bertsolari izango dituzte lagun: Gratien Alfaro, Johnny Curutchet, Jesús Goñi eta Martín Goicoechea. Curutchet, Goñi eta Goicoecheak, baita Jesús Arriadak ere (orain bertsoak lagata badago ere) National Endowment for the Arts National Heritage Fellowship saria jaso zuten 2003ko irailaren 20an, tradizio kultural eta folklorikoei eusteagatik Estatu Batuetan ematen duten sari gorena.


**Pedro J. Oiarzabal<sup>1</sup>**

<sup>1</sup> Pedro J. Oiarzabalek Euskal Ikasketetako Zientzia Politikoetako doktoretza dauka, Renoko Nevadako Unibertsitatean lortua. Gaur egun, Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko Migrazioen Taldean ikerlari aritzen da Bilbon. Nevadako Unibertsitateko Renoko egoitzako Euskal Ikasketen Zentroak orain argitaratu duen *Gardeners of Identity: Basques in the San Francisco Bay Area* (2009) berak idatzi zuen zuen. *Gardeners of Identity* Eusko Jaurilaritzak argitaratu zuen lehenengoz, Urazandi Bildumaren barruan.

# Hitz geqidunak

	Boza oze- nagotzeko	▼	Lepo	▼	Gipuzkoa- ko ibaia	▼	Ukatzeko	▼	Itzali
	Hareatza	▶	Noka, naiz	▼	Uztaia	▼	Araknido mota	▼	
	Ebaki sakona	▶						1000	▶
	Moztua	▼						Gizon izena	▶
IRUDIKO HERRIA	▼	Kazeta	▶	▼				▼	
Bizkaieraz, bertan	▶	Röntgen	▼						
					Urania	▶	Ardi, hitz elkarketan	▶	
					Gauero ohi dugu	▼	Sona, ospe	▼	
Nitro- genoa	▶	Erbioa	▶		Lanbroa	▶	▼		
Adunar	▼	Eskas	▼		Moila, nasa	▼			
							Kontso- bustia	▶	Kontso- nantea
							Iodoa	▼	Gironako ibaia
Arabako herria	▶				Beldurtu	▶	▼		
Errep., distira	▼				499	▼			
			52	▶			Garau, bihi	▶	
			Kontso- nantea	▼			Oxigenoa	▼	Bokala
Adi ezazu!	▶				Sagar- prentsa	▶			

## Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da

- Burua babesteko estalkiak.
- Irtenuneak.
- Lokarriak.
- Ugari.
- Begirada.
- Abere belarri handi.
- Lurpean bizi den ugaztun.
- Sailak.
- Jaiok.

## Soluzioak

⊗	E	Z	A	M	A	T	A	T	U	⊗	E
⊗	E	T	A	R	I	O	T	U	E	R	E
⊗	O	R	I	A	R	A	I	N	Z	A	L
⊗	A	R	K	U	A	I	I	O	I	O	L
⊗	I	D	U	N	L	O	I	I	D	A	
⊗	N	A	U	N	K	A	I	I	I	⊗	
⊗	B	O	Z	G	O	R	A	I	L	U	
⊗	H	⊗	E	T	E	N	A	I	Z		
			⊗	R	U	R	A	I	I		
			H	E	N	A	D	A	I	A	
			⊗	B	⊗	A	⊗	⊗	D	⊗	

**H - i - t - z   g - e - z - i - d - u - n - a - k**

1. Kaskoak. 2. Koskak. 3. Sokak.  
4. Asko. 5. Soa. 6. Asto.  
7. Sator. 8. Sortak. 9. Sortuak.

**Goitik behera**